



Irantzu PASTOR

Argazki gintzak funtzio soziala bete behar du

→ 16

Herrietako Bestak

Lesaka eta Azpilkueta

GOIZUETA-ARANO → 35

'Urumea arnastu' ekimena turismoa zabaltzeko

BAZTAN → 39

Erdizko meatze proiektuari berriz ekin nahi diote

SARA → 42

Eskola publikoaren besta eginen dute larunbatean

KIROLA → 44

Ainhoa Astiz Nafarroako jokalaria onena izendatua



Ekainaren 27an aztertu eta bozkatuko dute leitzarren eskaera Parlamentuan

ELKARRIZKETA → 3 **Markel AZKARGORTA** | Maxurrenea Herrintzat Plataformako kidea

Etorkizunean Hezkuntza edo ongintza zereginetan erabilia izan zedin eman zuten etxea jabeek. Nafarroako Gobernuak, ordea, Guardia Zibilaren esku uztea erabaki zuen, 15 urterako. Udalak eta Plataformak herriari itzultzea eskatzen dute.




Indarkeria sexistari STOP

Lesakan, sanferminetako aste-buruan, Lila Puntua jarriko dute informazioa zabaltzeko. → 24

Betiko familia ereduetatik haratago, bertzelako ereduak zabaltzen ari dira gure artean

Familia ez da sexu desberdineko bikote batek eta hauen seme-alabek osatutako eredura mugatzen. Gero eta gehiago dira seme-alaba izan edo adoptatu duten guraso bakarrak, edo familia izan duten sexu bereko bikoteak, intseminazioz guraso izan direnak...

ERREPORTAJEA → 4-5



KIROLAK → 45

Nafarroako herri kirol txapelketak sanferminetan

Nafarroako hainbat txapel erabakiko dira Iruñeko sanferminetan. Uztailearen 8tik 14ra kasik egunero txapelketak eta erakustaldiak izanen dira.

ADI! 2013ko EKAINAREN 1etik AURRERA DERRIGORREZKOA DA ETXEBIZITZAREN ETIKETA ENERGETIKOA ESKURATZEA



> Zer da etiketa energetikoa?

Etiketa honen bitartez bultzatu nahi dira energetikoki efizienteak diren eraikuntzak eta energiaren aurrezpenean egiten diren inbertsioak. Izan ere, 2013ko ekainaren 1etik aurrera edozein etxebizitza edo lokal **saldu** edo **errentan** emateko, beharrezkoa izanen da Etiketa Energetikoa izatea.

> Zer adierazten du etiketa energetikoa?

Eraikuntzaren kontsumo energetikoa

- A Kalifikazioa – Kontsumo txikiagoa (Isolamendu bikaina)
- G Kalifikazioa – Kontsumo handiagoa (Isolamendu ezin txarragoa)



> Zer gertatzen da ez baldin badut etiketa energetikoa edo daukadan etiketa ez datorrenean bat isolamenduarekin?

- Etiketa eta isolamendua ez datozenean bat **601€** eta **1.000€** arteko isuna.
- Etiketarik ez izanez gero **1.001€** eta **6.000€** arteko isuna.

> Nola kontrolatzen da etiketa energetikoa?

Nafarroako Gobernuaren obligazioa da ziurtagiriak kontrolatzea.



Betiko aurreratu egin da eta lortu du bere leihoguztiek **A mailako** Efizientzia Energetikoaren Etiketa (efizientziarik handiena) izatea .

Eta nobedadeekin segituz,

Betikok dagoeneko baditu **A+++** etiketa duten leihoak, Europan 2020rako eskatuko duten gutxieneko maila soberan gainditzen duten leihoak.

Noizbait galdetu diozu zeure buruari nolako efizientzia energetikoa duten zure leihoek, A-B-C-D-E-F-G?

Badakizu zenbat aurreztuko zenuen urtean **A** eta **A+++** mailako efizientzia energetikoa duten leihoak izanez gero?



Etorri gure instalazioak bisitatzera eta **erakutsiko** dizkizugu **A** eta **A+++** mailako leihoak eta, bidenabar, etxean aurrezpenik handiena lortzeko azterketa energetikoa eginen dizugu.



**Leihoak | Kontraleihoak | Sarrerako Ateak
Itxidurak | Pertsianak | Moskiterak**

Ordoki ind. • ARIZKUN | T. 948 453 259 | F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com | www.betikopvc.com

Hamar urte pasatu dira Leitzako Maxurrenea etxea Guardia Zibilarren kuartel bihurtu zene-
tik. Baina bere garaian, jabeek ongintza eta
hezkuntzarako utzi zuten eraikina eta herrita-

rrek berreskuratu egin nahi dute. Mobilizazio
jendetsuak egin dira; ekainaren 8ko manis-
tazioan, adibidez, 300 lagun bildu ziren. Parla-
mentura ere ailegatu da eskaera eta ostegu-

nean mozioa aztertuko dute. Udalak Maxurre-
nean zein zerbitzu kokatu herritarrekin disei-
natzeko zabalduko partehartze prozesuaren
emaitzak ere aste honetan aurkeztuko dituzte.

Markel AZKARGORTA | Maxurrenea Herrintzat Plataformako kidea

«Gobernuak entzutea nahi badugu herriak mobilizatu egin behar du»

G. PIKABEA | LEITZA

Zein da Maxurrenearen historia?

1975ean Jose Perurena eta Victoria Larratek Amazabal Patronatuari utzitako etxea da, baina donazio baldintzatu izan zen, etxearen jabeek Maxurrenea hezkuntza edo ongintzarako erabili beharko zela eskatu baitzuten. 1978an Patronatuak Nafarroako Gobernuari eman zion etxea, ongintza eta hezkuntzarako erabil zezan. Urte askoan, mojek zaindutako nesken erresidentzia egon zen, baina hauek joatean hutsik geratu zen, eta erabilerarik gabe egon zen urte luzez. Hori ikusita, 1998an Udalak etxea eskuratzeko eskaera egin zion Gobernuari zaharren egoitza egiteko, baina honen irakasleek euskara ikasteko barnetegia egiteko asmoa omen zuen. Udalak urte luzez hainbat gestio egin zituen, baita orduko Gobernu ordezkarien oniritzikiko proiektuak aurkeztu ere. Horrela 2002ra arte. Urte hartako otsailean Gobernuak Maxurrenea Espainiako Barne Ministerioari alokatzea erabaki zuen, Ateka beltzen zegoen kuartela utzi eta Guardia Zibilar Maxurrenean kokatzeko.

10 urte pasatu dira Maxurrenea Guardia Zibilarren kuartela denetik... Udalak behin baino gehiagotan eskatu dio Gobernuari kontratua etete-



UTZITAKO ARGAZKIA

Markel Azkargorta Maxurrenea Herrintzat Plataformako kidea da.

ko, baina erantzuna 15 urterako egin zegoela izan da beti. Halere, bada-kigu Gobernuak nahiko balu kontratua bertan behera utz daitekeela eta leitzarrok Maxurrenea eskuratu eta herriko beharretarako erabili ahal izanen genuke. 10 urte urrian beteko dira eta plataformak horregatik ekin dio berriz aldarikapenari.

Zer dio Gobernuak?

Bilera eskatu arren, ez dugu Gobernuarekin bilatzeko aukerarik izan. Harrituko gintuzke talde parlamentarioek beraiekin egindako lan-saioan Maxurrenea leitzarrei itzultzeko eskaera zilegitzat jotzen dutela adierazita, Gobernuak horri entzun-

PARTE HARTZEKO DEIA

«Herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu eta hemendik aurrera eginen ditugun ekimeneetan parte hartzerantz animatu nahi ditugu, Nafarroako Gobernuak entzutea nahi badugu, herriak mobilizatu behar du, herritarren partehartzea ezinbestekoa da. Etxea berreskuratzeko aukerak badaude, baina horretarako herriak ozen adierazi behar du bere nahia: Maxurrenea herriari itzultzea, herriaren beharrei erantzuteko erabilia izan dadin».

gor egin eta beste behin leitzarrei bizkar emanez Ministerioarekin duen kontratua ez eteteak. Gobernuaren borondate politikoa araberakoa da. **Parlamentuan erantzun ona jaso duzue, ezta?** Erantzuna oso positiboa izan da. Talde guztiek hartu gintuzten PPNk izan ezik. Helburuetako bat Leitzak dituen kultur eta ongintza beharrak eta azpiegitura falta helaraztea izan zen. Maxurrenea beharrezkoak diren zerbitzuak kokatzeko egoki ikusten dugula aipatu genien. Ezin dugu ahaztu Amazabal Patronatuak Gobernuari Maxurrenea uztean, etxearen erabilpenerako baldintzak ja-

rri zizkiola. Gure eskaera babestu eta Gobernuari Ministerioarekin duen kontratua bertan behera uzteko eskatu genien.

Zein erabilpen proposatzen duzue?

Plataforma moduan, ez dugu Maxurrenea proiektu zehatz batekin lotu nahi izan. Gure aldarrikapena Maxurrenea herriarentzat izan dadila da, hortaz, herriak erabaki behar du bertan zer egin eta Udalak zabalduko partehartze prozesua aukera hobereana izan da erabilpen hori zehazteko.

Hemendik aurrera zer?

Epe motzean, sinaduren kanpainarekin amaitu eta Nafarroako Gobernuari leitzarren eskaera bidaltzea dugu eskuartean. Gero, ostegun honetan Parlamentuan mozioa aztertuko dute eta hainbat gonbidapen lortu ditugu pleno horretan ikusle gisa egoteko. Ikusiko dugu plenoan zer gertatzen den eta Gobernuak zer erabakitzen duen. Gauza bat da plenoak erabakitzen duena eta beste bat Gobernuak Parlamentuak agindutakoa betetzeko duen borondatea. Herri babesa badugu eta babes politikoa ere bai. Argi dugu leitzar borondatea zein den aldarrikatzen jarraituko dugula eta horretarako formulak bilatuko ditugu Maxurrenea Leitzari itzuli arte.

Elkarrizketa osoa www.ttipi.net-en.

GIZARTEA → GURASOAK KONTU KONTARI

Guraso bakarreko familiak gero eta gehiago dira

Guraso bakarreko familia osatu duten aita eta amen esperientzia bildu du TTIPI-TTAPAK

Betiko familia ereduetatik haratago, bertzelako ereduak zabaltzen ari dira gure gizartean eta hala, aitak edo amak, bietako batek, eta seme-alabek osatutako familien kopurua igotzen ari da, baita gure eskualdean ere.

G. PIKABEA

Familia ez da sexu desberdineko bikote batek eta hauen seme-alabek osatutako eredura mugatzen. Gero eta gehiago dira seme-alaba izan edo adoptatu duten guraso bakarrak, edo familia izan duten sexu bereko bikoteak, intseminazioz guraso izan direnak... 2012an egindako 'Nafarroako bizibaldintzen inkestaren' arabera, Nafarroan familien %1,9 guraso bakarrekoak dira. 16 urtez azpiko seme-alabak edo 16-24 urte bitartekoak baina lanean ari ez diren seme-alabak beraien ardurapean dituzten eta bikoterik ez duten gurasoak sartzen dira guraso bakarreko familiaren baitan, bikotea hil egin delako, banandu delako edo sekula bikoterik izan ez dutelako. Kasuen %83,3an familiako burua emakumezkoa da. TTIPI-TTAPAK guraso bakarra izatearen esperientzia nolako den bildu nahi izan du eta Nerea Petrirena sunbildarrarekin eta Amaiurren bizi den Juanjo Arruizekin egon da. Nereak sortzez erusierra den eta abuztuaren hiru urte beteko dituen Ibai adoptatu zuen orain dela urte bat eta erdi inguru eta Juanjok Brasilen jaiotako Vilson hartu zuen etxean honek 12 urte zituenean.

Juanjo ARRUIZ eta VILSON (Amaieur)

«Sufrimenduen gainetik zoragarria da, ez dut ahaztuko ikusi nuen lehen aldia»

«Bizitza honetan egin dudana gauzarik ederrena Vilson adoptatzea izan da». Harro eta hunkituta solastu zaigu Juanjo Arruiz bere semeaz. Sortzez iruñearra da Juan-

jo, 24 urtez Bartzelonan bizitu zen, baina orain dela 12 urte Euskal Herrira itzuli eta Amaiurren lur hartu zuen. 57 urte ditu, ezkongabea da eta Brasilen sortutako Vilsonen aita da.

Kontatu digunez, «betidanik izan dut aita izateko gogoia. Hasieran, beharbada bizitzak lagundu ez zidalako, ez nuen egin. Bartzelonan hiri-



UTZITAKO ARGAZKIA


Juanjo Arruiz eta Vilson bere semea Amaiurren bizi dira.

haundi batean bizi nintzela, gibeleratzen utzi nuen. Baina honat etorri nintzeanean serioago planteatu nuen». Eta hala egin zuen, izena eman, eta behin prozesuan sartuta, «gero eta gehiago motibatatu nintzen», dio. «Gisa batera edo bertzer aita izan nahi nuen, berdin zitzaidan biologikoa edo adoptatua, niretzat nire semea berdin-berdin baita nire semea, odol berekoa izan ala ez». Eta zergatik Brasil? Bada gizonezkoa eta guraso bakarra izanda, adopzioarako arazo guttien han edukiko zituela erran ziotelako: «jatorriak eta arrazak bost axola zidan».

Izena eman eta lau urtera deitu zioten, ohiko bikote baten kasuan bezala: «orduan kezkatzen hasi nintzen». Izan ere, Juanjok 5-10 urte tartekoa eskatu zuen eta Vilsonek 12 zituen. Gibelera botatzen ahal zuela erran zioten, bertze proposamenen bat etorriko zela, baina Arruizek ezetz: «Vilsonen aurpegia ikusi nuenean nire semeazela ikusi nuen. Berdin zitzaidan eskatutako adina baino gehiago izatea. Urteekin Vilson zergatik etorri zen ulertu dut, mundua-

ren bertze puntan egonda ere, edozein gauzaren gainetik nire semea da».

Brasil hegoaldean jaio zen Vilson, eta haurtzaro zaila izan zuen. Horren ondorioz, honat etorri eta lehendabiziko bi urteak «zailak» izan zirela erran digu aitak. Oraindik ere une gogorak badirela dio, nerabea izanda dena galdetzen baitu: «normala da bere sustraian berri izateko gogoia izatea. Baina bera hemen-



AITATASUNA

«Aita izan nahi nuen, berdin zitzaidan biologikoa edo adoptatua, niretzat nire semea berdin-berdin da nire semea, odol berekoa izan ala ez»

Juanjo ARRUIZ
Amaieur, 57 urte

goa sentitzen da, arras euskalduna da eta hori erraten du». Lau urteotan Vilson ederki egokitu dela dio aitak: «jendearekin arras ongi erlazionatzen da eta lagun aunitz egin ditu. Indar eta borondate handia ditu eta ia zera oneko mutila da».

Juanjorendako «gogorrena» Vilsonen errealitatea zein zen jakitea izan omen da: «Brasilera joan aitzinetik egoeraren berri eman zidaten, txostena ere eman zidaten, baina ez dator bat errealitatearekin. Berak bizi izan duena aunitzez ere okerragoa da». Gaineratu digunez, «hilabete eta erdi egon nintzen Brasilen eta han bizitua benetan serioa izan zen». Baina hasieratik argi eduki zuen ez zuela utziko.

«Haserre nagoenean ere, nire maitasuna adierazi izan diot». Halaxe aitortu digu Juanjok. Eta orain, aita-semearen artean harreman estua sortu dela aipatu digu: «badaki ez dudala utziko». Lau urteren ondotik, gaur egun duen arazo bakarra akademikoa dela erran digu Arruizek: «10 urteko hutsune akademiko du. 12 urterekin hasi

DATUA

%1,9

GURASO BAKARREKO FAMILIAK NAFARROAN

Familien %1,9 guraso bakarreko familiak dira Nafarroan. Kasuen %83,3an emakumezkoak dira familiako buruak.

zen eskolan eta gainera-koekin desabantailan dagoela sentitzen da. Baina nik beti erraten diot lau urtez bi hizkuntza eta ber- teze gauza aunitz ikasi di- tuela». Onartu digu aita- tasunarekin berak bere buruaz ezagutzen ez zi- tuen ezaugarriak garatu dituela, eta gaineratu di- gu ez lukeela deus ere al- datuko: «orain nire lehen- tasuna nire semea da, bera da niretzat dena eta lehena. Hori garbi dut». Are gehiago, esperien- tzia errepikatuko omen luke adinagatik izan ez balitz: «Hau 10 urte lehen- nagotik egin izan banu, errepikatu eginen nuke». Hunkitu egiten da se- meaz solastean, izan ere, «bizitza honetan bizitu dudan gauzarik zoraga- rriena Vilsonekin egin duela» sentitzen du: «zo- ragarria izan da, eta ez dut sekula ahaztuko be- ra ikusi nuen lehendabi- ziko aldia, bere segurtasuna ikusi nuen lehenda- biziko aldia, hegazkina hartu eta etorri ginen lehendabiziko aldia...».

Nerea PETRIRENA eta Ibai (Sunbilla)

«Emozionalki hagitz gogorra da baina bizipen zoragarria eta ahaztezina da»

«Guraso bakarra iza- teko hainbat aukera aztertu ondotik, adop- zioarena iruditu zitzaidan egokiena». Hala eman



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Nerea Petrirena sunbildarra eta Ibai bere semea.

zuen ama izateko urra- tsa Nerea Petrirena sun- bildarrak. 36 urte ditu eta ezkongabea da, eta 2011 hondarretik berekin du Ibai Arsen semea, sor- tzez errusiara. Nuevo Fu- turo Elkartearen bidez egin zuen adopzioa.

«Prozesua luze xama- rra izan dela» aitortu digu, ia lau urtez egon baitzen esperoan. 2008ko apiri- lean hasi zen adopzioa tramitatzen eta hiru urte eta zazpi hilabeteren on- dotik ekarri zuen Errusia- tik Ibai. 16 hilabete zituen orduan, eta aurtengo abuztuan hiru urte bete- ko ditu. Behin proze- suan sartuta, lau hilabe- tez Nereak hiru bidai- a egin zituen Errusiara. Lan burokratikoak egiteko eta Ibairi umezurztegian egin zizkion bisitetan bi lagun izan zituen ondoan: «ba- tek errusieraz bakarrik hitz egiten zuen eta ber- tzea itzultzaileaz». Gai- nera, «autoz kilometro saiala egin nuen eta horre- tarako autogidari pribatua izan nuen». Edozein moduz, hiru bidaien an- tolakuntza eta Errusiako egonaldia «ezin hobek» izan zirela erran digu.

Guraso bakarra izan- da, herrialde guttiago izan zituen aukeran, are gu-

ttiago 0-3 urteko umea nahizuelako. «Momentu hartan Errusian bakarrik eskaini zidaten aukera», azaldu digu. Baina ber- tzela, ez omen du ozto- porik izan, «dena ongi joan da».

Hori bai, «emozional- ki hagitz gogorra» izan dela dio: «lau hilabetez hiru bidai- a egin nituen Errusiara. Hauetako bi- tan, Ibai bertan utzi eta etxera etorri behar izan nuen, hurrengoan noiz

joanen nintzen jakin ga- be. Halere, zortea izan nuen eta lehenbiziko bi- daiatik bigarrenera bi hi- labete bertzerik ez ziren pasatu eta bigarrenetik hirugarrenera 18 egun». Emozionalki «momentu gogorak» bizitu dituela onartu digu eta adibi- deak ere eman dizkigu: «Ibairen mediku xos- tenajaso nuenean, lehen- biziko aldiz ikusi nuene- an, bi aldiz Ibai han utzi eta etxera etorri behar izan nuenean, bi ordu eta erdiko epaiketa pasatu behar izan nuenean...». Azken bidaiari, ordea, «zorionekoa» sentitu zen: «Ibairi umezurztegitik atera zen une hura eta Sunbi- llara etorri aitzinetik Erru- sian elkarrekin pasatu ge- nituen egun haiek». Ibai lehendabizikoz ikusi zuen momentuan olakoa izan zen ere azaldu digu: «nahiko blokeatua geldi- tu nintzen eta gero ez nin- tzen oroitzen ere Ibai be- re gelatik atera eta lau hantetan etorri zela gu- regana».


Buruhausterik haun- diana «umearen osasun egoera fisiko eta psiko- logikoak» eman dio. Izan ere, errusiar ume ba- tzuek Fetu Alkoholikoa- ren Sindromea izaten du-

te, hau da, haurdun- dian edo edoskitzean amak kontsumitzen duen alkoholaren eragi- nez fetuak ondorio latzak paira ditzake. Dena den, Nereak oraingoz Ibairi so- matu dion hutsunerik haundiena «maitasun fal- ta ikaragarria» izan da. Berak azaldu digunez, «maitasun falta haundia dute ume hauek, baita berriz gurasoak galtze- ko beldurra ere. Bi gau- za hauek lantzea ez da erraza, baina horretan ari gara jo eta ke».

Hemezortzi hilabete pasatu dira Nereak Ibai semea ondoan duene- tik, eta bere hitzetan ama- semearen arteko harre- mana «hagitz estua» da. Gainera, mutikoa «hagitz ongi egokitzen» ari omen da. Ama izanda «zorion- tasun haundia» sentitzen duela ere onartu digu, eta Ibai ere eman dio lezioa: «momentua bizitzen era- kutsi dit. Ez nuen pentsa- tzen hain ttikia izanda hainbertze gauza eraku- sten ahal zituenik».

Adopzioaren aukera orokorrean garestia de- la dio Nereak, baina gu- raso izan nahi duen nor- baiti «dudarik gabe» ahol- katuko lioke. Hori bai, «le- hen bailehen hasteko» gomendatu du, eta «pa- zientzia aunitzekin, proze- su luzeak direlako». Berak «gustura» errep- ikatuko omen luke, «den- bora luzez esperoan egon beharko ez balitz eta ba- tez ere, hainbertze diru kostako ez balitz».

Ibai semearekin kon- tent bizi da orain sunbil- darra eta nabari zaio, ama izateko ametsa egi bi- hurtu baitu. Adopzioare- na «bizipen zoragarria eta ahaztezina izan da eta izaten ari da», adie- razi digu. Eta bide ho- rretan laguntza eskaini dietenez ere ez da ahaztu: «eskerrik asko Laura eta Cristinari, zuen laguntza eta maitasuna- gatik».



AMATASUNA

«Batez ere momen- tua bizitzen erakutsi dit semeak. Ez nuen pentsatzen, hain ttikia izanda, hain- bertze gauza era- kusten ahal zituenik»

Nerea PETRIRENA
Sunbilla, 36 urte



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Erabaki ttikien indarra

Bizi dugun krisia dela eta, ikuspuntu interesgarri bat aditu dut: egoera azpitik goiti aldatzen saiatu behar dugula dio. Hau da, politikariek egiten dutenaz gain, guk ere egoera aldatzeko aunitz egin dezakegula.

Nola? Errexki: erabaki batzuk hartuz.

Adibidez, elikaduraren negozioak sekulako indarra omen du, beldurgarria. Ba ez dezagun negozio hori haunditzen lagundu. Kate handietako produktu horiek erosi beharrean, sortzen ari diren kontsumitzaileen elkarteetan parte hartzen ahal dugu (Bidazi eta Barraskilo gure eskualdean).

Bertze erabaki bat: gurekin aberasten diren Iberdrola, Enagas eta gisa horietako enpresei dirurik ez ematea. Kooperatiba ttikiei erosten ahal diegu behar dugun elektrizitatea (Euskal Herrian Goienar dugu).

Edo bertze bat: Ez utzi zure dirua edozein banketxetan. Badakizu batzuk ez direla fidagarriak. Badaude bertze gisa bateko banketxeak. Bilatu 'banka etika'ri buruzko informazioa.

Gauzak aldatzea nahi badugu, hasi gaitezten guk posible dugunarekin.


Ezpala

Aitor AROTZENA

Ezetz diodanean ezetz da

Ez. Zalantzarako tarterik uzten ez duen solasa. Baina bada, masifikazioaren aitzakian eta bestetan denak balio duelakoan, zirrikiturik topatzen dionik ere: ezetz erran dit, baina xuabe-xuabe. Matelezurrekoa eman dit, baina minik eman gabe. Garagardo katxia burutik beheiti hustu dit, baina frexkatzeko izanen zen. Ostatatutik alde egin du, baina nik gibeletik segitzeko... Ez-ez-ez-ezetz!

Nabarmentzekoak



Niko MINDEGIA
Logroñoetik Hungariara

Sasoi bikaina egin du Logroñoeko NaturHouse taldean eta orain, Asobal Ligatik Hungariakora salto egin du doneztebarrak. Pick Szeged talde txapel-dunean ariko da.



Ramon APEZETXEA
50 urtez Almandozen apez

Sortzez goizuetarra bada ere, bizi erdia baino gehiago darama Baztan aldean. 50 urte beteko ditu Almandozen apez ari dela eta herri-tarrek omenaldia es-kainiko diote igandean.



Jesus ALACID
Saskibaloia bultzatzen Beran

1999an, hutsetik abiatuta, mutiko talde bat entrenatzen hasi eta Toki Ona-Bortziriak taldea sortu zuen. Gaur egun, 100 neska-mutiko baino gehiago mugitzen ditu saskibaloiak Beran.

Atzera begira → 2003.07.03 / TTIPI-TTAPA 353 zbk.



Baztango Xauli eta Baigorriko Gazte Bulegoa elkarlanean

«Baztan eta Baigorri arteko harremana berreskuratu nahi dugu». Hala zioen Irantzu Izeta, Baztango Xauliko arduradunak duela hamar urte. Xede horrekin, urte hartan, Argibide proiektuaren barnean, Baigorriko Gazte Bulegoarekin elkarlanean ari ziren eta *Biak Bat* aldizkaria karrikaratu zuten. Lau urte lehenago hasia zen lanean Xauli. Lehenik, ezinduen aisialdian laguntzeko ekimena egin zen eta gero, Gazteen Informazio Bulegoa. Zerbitzu hori Baztango udalak bere gain seriotasunez hartzeko ordua zela uste zuen Izetak, «bertze tokietan egiten duten bezala, bertzenaz, itxi egin beharko da».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

cajanavarra
fundación

CajaNavarra Fundazioak diruz lagundua

Kolaborazioak

Zer gertatu zen 1813an?

Mikel TABERNA IRAZOKI «KAPI»

Ari dira han-hemenka ospakizunak antolatzen, orain dela berrehun urte gure lurraldean gertatu zirenak oroitarazteko. Napoleonen armada Penintsularen jabe egina zen, baina orduan gibelka heldu zen, haren kontra gogor hasiak baitziren ingelesak eta portugesak, espainolekin aliatu zirenak. Gure eskualde osoan ere, mugaren bi aldeetan, tropa mugimendu handia izan zen. Berriki arte gehienbat militarrek egin zituzten espantukeriak bertzerik ez dizkigute kontatu: Donostia erre zuten egunekoa, San Migel zubikoa, Ugaranako gudua, Errobikoa... Horretaz gainera, erran digute Lesakan plantatu zuela kanpamendua Wellingtonek eta Berako Aroztegiaren lo egin zuela Jose Bonapartek. Hagitzez gauza guttiago dakigu, ordea, gure herrietako jende arruntak bizi izan zuenaz. Galdetu beharko genuke Mikel Laboak kantatzen zuen bezalatsu: nork eman zien jatera soldadu haiei guziei? Nondik hartu zituzten kolpatuentzat behar zituzten maindireak? Bakean utzi al zuten hemen bertako jendea, emakumeak berexiki? Noren alde ari-otu ote ziren gure bizilagunak? Gure historialariak lan ederra egiten ari dira gerra haiek tartean harrapatu zuten jende xehearen orduko goiti-beheitiak ikas-terko eta hitzaldien bidez guri ezagutarazteko. Niri gogorazio hauek burutara etorri zaizkit begiak aspaldiko ТТИПІ-ТТАПА bati begira ditudala. 1983ko udaberri-udako ale bat da, eta bertan Berako Landaxokok sinatzen duen artikulua ederra heldu da; egileak erraten du Tipita-baitako Francisco de Arandia dendariaren salerosketa liburutik hartu dituela hitz hauek: *“1813ko ekaina. Frantzes armada Beratik iheska pasatzen da. Oihuak, maldizioak, zaldi irrintziak, fusilen eta zizpen zapetak. Agerrako bidea soldadoz bete. Batzuek hor, Mukixun zubian, gurdi zahar bat zutik ezin altxatuz. Inglesak Santa Barbaratik enbata haizea bezala Kaxerna aldera. Nere burua nahiko estu ikusten dut, ni ere herriaren eta frantzesen arteko harremanetan ibili naiz eta. Egun batzuek kanpora joaten banintzake...”*. Ez zaizu interesgarria iruditzen? Segitu behar dut irakurtzen.

«Hagitzez gauza guttiago dakigu, ordea, gure herrietako jende arruntak bizi izan zuenaz. Galdetu beharko genuke Mikel Laboak kantatzen zuen bezalatsu: nork eman zien jatera soldadu haiei? Nondik hartu zituzten kolpatuentzat behar zituzten maindireak? Bakean utzi al zuten hemengo jendea, emakumeak berexiki?»

Kontuz hortzak urreztatuta dauzkaten marrazoekin

Joseba URKIOLA

Hautsak ederki urratuak daude bazterretan. Oraingo honetan gainera, ez da fruitua edo lorea asaldatu dena ezta hostoa ere, erroak gertu dauzka sustrai zailduak. Hainbat urte amildegian kili-kolo egon ondotik, azkenean pentsioak ikutuko dituzte. Modan dauden Espainiako Parlamentuko guraizeen zorroztasun beroari ezin honek ere ihes egin, baina mozketak honek beste batzuekin alderatuta ohiartzun zabala ekarriko du. Geroz eta zaharrago eta helduago den gizarte bati biharko ogia, bizi iraupena kolokan jartzea ez baita ahuntzaren gau erdiko eztula. Mariano Rajoyk presidentziarako kanpainen argi zabaldu zuen lau haizetara, gandar harroarekin eta konfiantza osoarekin, Alderdi Popularrak Monkloako giltzak poltsikoratzen bazituen ez zituela Hezkuntza, Osasuna eta Pentsioak inolaz ere ikutuko. Hitz hauek gainera ABC egunkariko portadan ikusgai egon ziren sasoi hartan. Baina askotan gertatu ohi den moduan, eta politikariekin gehiago, haizeak aspaldi eramanak dituen promesa antzuak besterik ez ziren orduko haiek. Behin osasun publikoa gaixotu eta hezkuntza ahul utzi ondotik, argi zegoen goiz ala beranduego pentsioen txanda izango zela. Bada esan eta egin. Uztailaren amaieran, jendea abuztuko oporretan edo euren herrietako jaietan pentsatzen ari den bitartean, Espainiako Kongresuan legea gorpuzteari ekingo diote. Oposizioa aho batez aurka azaldu arren, Madrilen batek bakarrik agintzen du eta orain pentsioak hartu dituzte euren jostailutzat. Hainbat urtetako borroka, lan eta protestak ezerezean amilduak geratuko dira. Gizartea zaharragoa izango denaren argudioa esku artean hartuta, argi dago orain arteko sistemak ez zuela etorkizun oparorik. Baina beharrezkoa al da pentsioak ahultzea? Horrek krisi zurrun honen amaiera eta egoera hobea marraztuko ote du? Aditu asko ezezkotan daude, are gehiago orain arte lan erreformaren edota politika ekonomikoaren inguruan harturiko erabakiak nolako emaitzak ematen ari diren ikusita. Jendea erabat ez haserretzeko eta erabakia justifikatze aldera, Espainiako Gobernuak adituen komisio bat eraiki du. Talde horretan pertsona batek bakarrik eman du ezezko borobila eta beste bat abstentzioaren alde agertu da. Gainontzeko guztiak, murrizketen alde daude. Ezin ahaztu ordea, etorkizun beltzari oraindik eta kolore ilunagoa margotzeaz arduratu direnen artean aseguru etxe pribatuetako ordezkariak daudela. Ase ezinak diren marrazo bihotz gabe hauek ondo dakite, itsaso zabalean zenbat bazka gehiago hobe dela eta oraingo erabaki honekin, hortzak urrez mozorrotu beharrean dira. Irabazi duinik ezean eta bihar zer gertatuko den kezkarerkin, hiritarra pentsio pribatuen aldeko apostua egiteko bultzarazten ari baitira agintariak. Are gehiago kontuan hartuta, pentsio planak egin ezkerro Ogasunean abantailak eta deskontuak izaten direla. Tentazioa beraz ziurtatua dago.

Irakurleak mintzo

Heriotzaren
urtemugan
Mikel gogoan

Amaia SAGASTIBELTZA
AZPIROZ (Malerrekako
Mankomunitateko lankide
eta lagunen izenean)

Kaixo Mikel,
Urtebete pasa da Peruko mendietan harripatu zintuen elur-jauzi batek gure artetik eramanean zintuenetik, orduetik gertaera hura gogoa daukagu.

Negua luze joan da inguru hauetan eta orain, udaberri buelta honetan, eguzkiak bere aurpegia erakusten duen egunetan, inoiz baino gehiago oroitzen garen zurekin, Mikel.

Kirola maite zenuen, zure pasioa zen mendia, bizikleta, naturarekin zer ikusia zuen edozer. Urte sasoi honek gosol garaiko solasaldiak betetzeko tartea ematen zigun, zure planez, asmoez, egindakoez aritzen zinen/giñen gustora, izaten zenuen beti zerbait.

Aurten, aspaldi ez bezala Mendaur tontorra xuri-xuri agertu zaigu noiz-nahi, ziur hau ere zurekin akordatu zela!!!

Zauden tokian zaudela ere, ez utzi hanka, beso eta mihia astintzeari, elkar ulertzen ginen mintzaira hedatzeari; gure bihotzean zuretzako txokoa gordea daukazu.

Ongi segi eta beste bat arte.



Bota bertsoa

Joxe Mari FAGOAGA (Ituren) • Doinua: Habanera

Mendaurko ermita berritu zela 50 urte

Egunon lendabiziko hemen kantari hasita gure aurrean daukagu Mendaurko zelai polita berrogeita hamar urtez gure urteroko zita hemengo ta joandakoak ez dauzkagu ahantzita auzo lanean egina herritikan etorrita zaldi ta asto gainean behar zena ekarrita gaur zuetaz oroitzea dena pentsatzen hasita zuengatik dago hemen gure Mendaurko ermita.

Goi xamar egote horrek izaten dun arriskua tximistak askotan jotzen pareta ta teilatua saiatzen gara ematen merezi duzun tratua herrian ta inguruan bai zara zu maitatua mende erdia da aurten zu orduan berritua herriko jende gehienak botako zuen eskua orduan egin zutena beraiena meritua gaur zuentzat dira gure txalo, bertso ta aureskua.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehienkabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 leerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

F. LANCHAS
Akuñoladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
Jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

zalain
JATEZEA - RESTAURANTE
Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

MUEBLERÍA TELLERÍA
DISEINUA HARITZEAN - BUSTIKOA
KALITATEZKO ALTZARIEN 700 m²ko
erakustokia prezio interesgarriekin
• Neurria eginak
• 3500 Haritz Trinkoa
• Enpotratuak
• Sukaldeak
• Txokoak
IZUGARRIZKO ESKAINTZAK
BERRIOPLANO (Nafarroa) - Tel. 948 30 35 04 - 699 43 30 87 - www.mueblestelleria.com

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalifikazioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosai taldea

Prentsatik bildutakoak



«Nik ez nuen sekula pentsatu buruz buruko txapelketa irabaziko nuenik. Ikusten nuen ni baino kolpe gehiagoko pilotariak bazeudela. Niri lau t'erdikoa gustatzen zait. Baina buruz buruko lehen txapela irabazita, ikusi nuen nik ere txapela irabazteko modua banuela orain jokatzeko era honekin, airez, sota-manoz, botera altuera emanez...».

Aimar OLAIZOLA
Goizuetako pilotaria
BERRIA 2013.06.19



«Beldurra, ezjakintasuna eta iluntasuna adierazten ditu *Kokoherri* adierak. Bestee-na, arrotza. Baina bestetasun hori gurea ere bada. Beste batzuk dabilta herri horretan, baina, azkenean, gu gara herri horren barruan gaude-nak, gure bestetasuna edo arrotzatsuna adierazten duen kontzeptu gisa hartua dago hemen [argitaratu berri duen liburuan]».

Patxi ZABALETA
Leitzako idazlea
BERRIA 2013.06.19

11 galdera labur

Nor dugu Maite Urrutia?

Umore eta ilusioz beteriko azpilkuetarra.

Pelukera lanetatik, administrazio lanetara...

Aldaketa handia da baina ttikitari esaten nuen haunditzekin pelukera edo "sekretaria" izan nahi nuela. Urte askoz pelukera bezela lan egin dut eta, orain administrazio bezela probatu nahi dut.

Bidaia berexiak egina zara, zein txoko ezagutu dituzu?

Leku aunitzetan ibilia naiz baina esperientzi ikusgarri bezala Rio de Janeiroko karnabalak aipatuko nituzke, eta bidai polita baina gogorra aldi berean Indiatic barna ibili nintzenekoa.

Hurrengo hegazkina nora?

Munduko edozein lekura joateko ez nuke problemarik izanen.

Saharatik urtero bisita jasotzen duzu...

Bi haur ekartzen ditut, anai-arrebak, eta bi hilabetez gure artean egoten dira. Aurten laugarren urtea izanen dut. Esperientzi arras ona eta aberasgarria da.

Zerk bultzatu zintuen erabaki hori hartzera?

2009ko udan gaixotu eta hilabeteak pasa nituen ospitalean. Hurrengo uda hurbiltzen hasi zelarik, nire burua lagungarri sentitu nahi nuelako hartu nuen erabakia.

Gaixotasunaren aurrean zein izan zen botikarik hobereena?

Bizitzeko gogo aunitz izatea eta sendatzeko esperantza inoiz ez galtzea!

Bestazale dena, betirako bestazale?

Nik uste baietz. Orain parranda guti egiten dut, baina bakar hoiek ongi eginak izaten dira.

Bestarako toki bat?

Elizondo edo Baztango edozein herriko besta.

Azpilkuetako bestetako ekitaldirik gustokoena?

Zikero-jate eguna aunitz gus-tatzen zait.

Amets bat?


Dudarik gabe, urte askoz osasunez ongi egotea.




Maite URRUTIA → Azpilkuetako gaztea



Manikura eta Pedikura



Azazkal landuak



Esmaltatu iraunkorra



OYÁ
EDERTASUN ZENTROA

Legia, 45 - behea • BERA
T. 948 631 005 • M. 698 499 192 • 698 499 204

- ▶ OSPAKIZUN ETA EZKONTZETARAKO MAKILLAJEA
- ▶ BEKAIN ETA BETILEEN TRATAMENDU IRAUNKORRA
- ▶ KAILUEN, GOGORGUNEEN... TRATAMENDUAK
- ▶ BETILEEN LUZAPENA (ILEZ-ILE)

ORDUTEGIA:

Asteartetik ostiralera:
09:00-13:00 • 16:00-20:00
Larunbatetan: 10:00-14:00

www.facebook.com/estudio.oya

BORTZIRIAK

HONDAKINAK → AUZO KONPOSTAK URTEBETE

84 kilo terdi konpost lortu dute Berako Xubi-xabalgo familien artean

Berako bertze bi auzotan eta Lesakako batean ere paratu dituzte auzoko konpostontziak

TTIPI-TTAPA

Orain dela 5 urte etxeko konpostaren inguruan kanpainak egiten hasi zen Bortzirietako Hiri Hondakinaren Mankomunitatea. Joan den urtean bertze pauso bat eman nahi izan zuen eta auzoko konpostarekin hasi zen. Horrela, pisuetan bizi den jendea eta lur zati

bat ez duten familiei konposta egiteko eta beraien hondakin organikoak birziklatzeko aukera ematen zaie.

Hori dela eta, 2012ko ekainean lehenbiziko puntua paratu zen Berako Xubi-xabal auzoan. Hiri Hondakinaren Mankomunitatetik jakinarazi dutenez, «12 familiekin hasi ginen eta jada 20 familia inguru izanen gara. Ekainaren 11n, urtea pasatu eta gero, parte hartzen ari diren familien artean konposta banatu genuen. Konposta hau idortzen utzi dugu eta gero galbahetik pasa oraindik eginda ez dauden hondakinak bereizteko



UTZITAKO ARGAZKIA

Mankomunitateko teknikaria konposta banatzen Xubi-Xabalen.

eta berriz ere konpostoz sartzeko. Guztira 84,5 kilo konpost banatu ziren eta jendea hagitik kontent agertu zen».

AUZOKO KONPOSTONTZI GEHIAGO BERAN ETA LESAKAN

Bertzalde, orain dela bi hilabete bertze hiru auzotan paratu ziren konpostontziak hor bizi diren bizilagunek konposta egiten hasi ahal

izateko. Bi Berakoak dira eta hirugarrena Lesakakoa. Beran Iturlandeta karrikan eta Burga plazan paratu ziren eta Lesakan, berriz, Bittiria karrikan.

Guztira, lau puntuen artean, 70 familia inguru gehiago konpostatzen ari dira hondakin organikoak. Denera, 180 lagun inguru izanen dira Bortzirietan, beraz, urtean 13 Tona honda-

kin organiko inguru biltzen ahal dira. Horrela, Tona hauek ez dira bildu, Iruñera garraiatu eta han uzteagatik tasa ordaindu behar. Beraz, konposta egiteak onura aunitz ditu, bai ekonomikoak bai ekologikoak. Gainera, argazki- an ikusten den bezala, hagitik kalitate oneko konposta ateratzen da gure lore eta baratzetan erabili ahal izateko.

ZATOZ BERAKO BARCELÓ

BIDAI AGENTZIARA
eta erreserbatu udako
OPORRAK PREZIO
HARRIGARRIETAN

EGIN
BIDAIK

Karibe, Kosta, Irlak, Kruzeroak,
Europa, etab... eta behar izanez
gero, hegazkin bileteak, tren
txartelak, autobus txartelak...

Barceló Bidaiak,
Eztegara, 22,
31780 BERA
T. 948 631 388
bera@barceloviajes.com

Barceló

LESAKAKO

BESTAK 2013

Ekainak 28, ortzirala

20:00 Eskol Ttikiko aparkalekuan, musika herrikoiaren inguruko kontzertua Lesakako Musika Bandaren eskutik.

Ekainak 29, larunbata

15:30 Ilasmendiko tiro-eremuan Plater Tiro Lehiaketa Pagolleta Ehiza Elkar-teak antolatuta. 16:00 Arkupe elkarteak antolatuta, haurren pilota erakustal-dia udal pilotalekuan.

Ekainak 30, igandea

17:30 Trikitixa Txapelketa Plaza Zaharrean.

Uztailak 5, ostirala

(txozna batzordeak eta ostatuek antolatuta)

14:30 Txoznetan bazkari herrikoiak txoznak muntatzen lagundu duten guz-tientzat. 18:00 Txoznen irekiera ekitaldia, TXUPINAZOA! 20:00 Herriraren mani-festazioa. EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK ETXERA! 20:30-21:00 Gazte Al-darrikapen poteoa, elektrotxarangarekin. 23:00 Kontzertuak Plaza Zaharrean Skakeitan eta On taldeekin.

BORDA ISOLAMENDUAK

ISOLAMENDUAK
Termikoak | Akustikoak | Suaren kontrakoak
PLADUR LANAK • Erroberritzeak • Enskaintza
Industriariak • Dekorazioak • Sabai modularrak
T/F. 948 637 546 • M. 609 477 277
LESAKA • bordaisolamenduak@telefonica.net

GORA SAN FERMIN!

borzuzud
TOPREDIA - HOPISTEKO
948 631 521
material gutxiesten ingurimutuan duzu
hamarretan / operatzean artibulua

Dia %

LESAKA

Sanferminetan
atordu goxoak
prestatzeko
LESAKAKO DIA

Plaza Berria, 10 • 948 637 335



BAR FRONTÓN

PLAZA BERRI N°38/948627518/31770-LESAKA

iRU BiDE

Erretoria - Asada



Bizkaia, 3
LESAKA
Tel:
948 637 127

ITURBENA



ONGI
PASA
BESTAK!

KAFETEGIA - OGITARTEKOAK - BOLLOAK

T 619 188 360 / KOSKONTAKO BIDEA, 5 / LESAKA



LESAKAKO

BESTAK 2013

Uztailak 6, larunbata BEZPERA EGUNA

FAGOAGA HARATEGIA

Aupa San Fermin !!

Albistur, 17 - 948 63 78 69 - LESAKA

TALLERES FRAIN

LESAKA - Tel.: 948 637 525

Ongi pasa bestak!

MATIAS MITXELENA
erakuntzak

Etxeak •
Zaharberritzeak •
Tollatuak •

T. 948 63 71 82 • 608 77 79 08 LESAKA

ttipi-ttapa

ongi pasa bestak!

JAVIER ALZUGARAI S.L.U
Hondeaketa eta Garraio Lanak

ONGI PASA BESTAK!

Nabaz auzoa | Guillen-borda | 31770 Lesaka | Nafarroa
T. 646 986 448 | F. 948 637 390
excavacionesjavieralzugarai@gmail.com

Barceló
BIDAIAK

OPORRAK
GUREKIN

Plaza Zaharra, 4 LESAKA
948 638 179
lesaka@barceloviajes.com

ONGI PASA
BESTAK!

TRIRULA
KRISTALDEGIA

ONGI PASA
BESTAK!

CLIMALIT kristal bikoitza
ISPILUAK edozein lodiera eta kolorekoak,
abakadunak, kanteatuak...
BEIRA-PLAKA LANDUAK
BEIRA BLINDATUAK

Landazelaite pasealekua 4
LESAKA · 667 424 649

GARBILEKU
GARBITEGIA - LAVANDERIA

Aitonbrak, larua, antea...
denetarik oro har
garbitzen dugu

Bestak ongi pasatu!

Sumaria 2 · 948 637 438
31770 LESAKA



- 12:00 Herriko Etxetik ALTXAFEROA
- 12:00 Haurren danborrada txistulari, soinulari eta trikitilariekin
- 12:00 Ezkil jotzea.



- 17:30 Frontoian, Tantirumairu Euskal Folklore Taldearen erakustaldia.
- 20:00 Peñen Danborrada, Erraldoi, Buruhandi, soinulari, eta Lesakako Bandarekin herriari itzulia.
- 22:00 Egurra Ta Kitto taldearen emanaldia Plaza Zaharrean.
- 00:00 Musika Plaza Zaharrean Gozo Gozo taldearekin.



Uztailak 7, igandea SAN FERMIN EGUNA

08:30 Ezpatadantzarien Meza isila.

10:30 Meza Nagusia.

Ondotik Fermin Zaindariaren irudiarekin prozesioa. Ibilaldiaren ondotik, Udalbatza, lehen aipatutakoekin, mezara joan diren moduan jaitsiko da Eskolttikira, Onin errekaaren bi aldeetan egiten den ZUBIGAINEKOA dantza.



Ondotik Bandera-arbola doinuari dagokion ikurrin-agurra zubi gainean. Agur edo dantza bera Plaza Zaharrean.

18:00 Bezperak; Lesakako Abesbatzak kantatuak.


Ondotik Ezpatadantzari taldeak Mutil-dantza, Neska-dantza, aureskua eta jotak dantzatuko ditu Plaza Zaharrean.

19:30 Plaza Zaharrean, bertso jaialdia, Arrano Elkarteak antolatua.

Bertsoariak: Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Arkaitz Estiballes, Xabier Silveira eta Eneko Fernandez.

Gaijartzaile: Alaitz Rekondo. Gaiegile: Bortziritako Bertso Eskola.

Gauetz Musika Plaza Zaharrean, Tximeleta taldearekin.



GESTETIKA
MIGARZABAL

Ongi pasa bestak!

Albistur, 15
T. 948 63 72 80
31770 Lesaka

IÑAKI JANARIDENDA
- ONGI PASA BESTAK -

Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

ALTZURI
ETXE-TRESNAK

Bittiria, 33 • LESAKA • 948 627 531

ruth
ILEAPAINDEGIA

948 637 436
LESAKA

Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!

ongi pasa bestak!

IZARRA
OKINDEGIA

PLAZA ZAHARRA 12-13
31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

INSTALAZIEN BERRIKONSTRUKTIOA

INDARRI

ONGI PASA BESTAK!

HOTZ KOMERTZIALA
ETA INDUSTRIALA
AIRE GIROTUA

639 103 305
Zubi, 13
31789 LESAKA

BURBUILA

Bittiria, 36 • LESAKA • 948 638 004

BORTZIRI
UNSION ANAIK

Sukalderako altzariak

ONGI PASA BESTAK!

Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 206 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511



ZOANSA

ONGI PASA BESTAK!
TXARA - PINTURA - MEKANIKA - ELEKTRIZITATEA

SEAT AUDI Volkswagen HYUNDAI

Bonarta, 2. Alkaiaga Ind. - LESAKA (Sarrera Beratik) - LESAKA
T. 948 625 555 F. 948 625 505
zoansa@zoansa.com

MARMOLES ALKAIAGA, S.L.

Gisa guzietako lanak marmol eta granitoan

ONGI PASA BESTAK!

Alkaiaga Ind. Ziobi, 11 (sarrera Beratik) - LESAKA
Tel: 948 631 215 Faxa: 948 631 063
Mug: 609 207 731
marmolesalkaiaga@gmail.com

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

ONGI PASA BESTAK

LESAKA: Eltzeta 20 behea
Tlf./Fax 948637050
BURLATA: La Viña, 4
Tel. 948 133 328 - Faxa: 948 133 713
amaia@artekari.com



JOISA

**AROTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK**

Barandak, balkoiak, atekak, hesiak, forja artistikoa, ...

**T./F. 948 638 150
M. 646 774 117**

ONGI PASA BESTAK!

Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com



TXIRULA

ONGI PASA BESTAK!

TXIRULA
LOREDENDA

opariak • bitxiak
enmarkazioak

Albistur 39 LESAKA
T. 948 627 542



LESAKAKO

BESTAK 2013

Uztailak 8, astelehena PEÑEN EGUNA

- 09:00 Peñen gosaria.
- 10:00 Peñen danborrada, Pasaia Txarangarekin.
- 12:00 Haurrentzako entzierroa Ote karrika - Plaza Zaharra.
- 12:00 Betizuak, Plaza Zaharrean Pasaia Txarangarekin.
- 16:30 Plaza Zaharrean haurrentzako ikuskizuna: Circolando.
- 18:00 Peñen jeitsiera Pasaia Txarangarekin..
- 21:00 Musika Plaza Zaharrean Trikidantz taldearekin.



Uztailak 9, asteartea HAURREN EGUNA

- 10:30 Haur eta gurasoen danborrada Pasaia Txarangak lagunduta.
- 11:30 Haurrentzako entzierroa Andra Mari Egoitza - Plaza Zaharra
- 12:00-14:00 Haur ikuskizunak Eltzetako plazan.
- 12:00 Betizuak, Plaza Zaharrean, Pasaia Txarangarekin.
- 17:00-19:00 Haur ikuskizunak Eltzetako plazan. Bukaeran apar besta
- 18:00 Frontoian, eskuzko pilota partida profesionalak.
- 20:00 Erritmo, birziklapenaren batukada.
- Arratsaldez Pasai Txaranga karrizak karrizak.
- 23:00 Musika, Plaza Zaharrean, Triki Ta Ke taldearekin.

Uztailak 10, asteazkena BIKOTEEN EGUNA

- 11:30 Haurrentzako entzierroa. Eltzetako plaza - Plaza Zaharra.
- 11:30 Andra Mari Zahar Etxeko lorategian, Nafarroako Jotak, ALEGRIA RIBERA.



- 12:00 Betizuak, Plaza Zaharrean, Pasai Txarangarekin.
- 12:00 Gorriti eta bere animaliak Bittiriako Plazan.
- 14:00 Herri bazkaria Eltzeta karrikan.
- 18:00 Plaza Zaharrean, Nafarroako Jotak, ALEGRIA RIBERA taldearekin.
- 20:00 Txakaindik jeitsiera, ZORTZIKO doinuarekin.
- 20:00 Musika Plaza Zaharrean LA JOEDERA taldearekin.
- Gauetz Musika Plaza Zaharrean MODESTO akordeolaria.
- 03:30 JAI-HILAK Pasai Txarangarekin.



TRANSPORTES IRIGOYEN
ONGI PASTA BESTAK
629 592 215 - BIURRANO AUZOA, 1 - LESAKA

garbiketak - limpiezas
usi
ongi pasta bestak!

MOTA GUZTIETAKO GARBIKETAK

- Bulegoak, portalak, etxeak, kristalak, garbiketara orokorra eta eraikitza lanetakoak
- Industria-makinekin lan egiten dugu
- "Fregado en plano" delakoa
- Produktu profesionalak (pasterozkoen aurkakak, alaitzak...)

T. 689 305 221 (Oihane) LESAKA

Semper autoeskola
ESKAINITZA BEREZIAKI!
Ikastaro teorikoa nahiz praktikoa euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Ertegarra pasealekua, 26 BERA T. 948 630 298	Plaza Berria, 7 LESAKA T. 948 638 299
----------------------------------------------------	---------------------------------------------

e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasta bestak!

"TELLETXEA"
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikaria
LESAKA • T. 619 418 683
johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

XAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax BERRIA:
948 638 232
Koskontako bidea, 7
31770 LESAKA

BESTATAN
EGUNERO IREKIA 08:30-13:00

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBrik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

zabala dena berriz ezarri!

ainhoa
estilista

ORDUEREA
Asteartetik ostiralera:
09:30-13:30 | 16:00-19:00
Larunbatetan: 09:00-14:00
Astelehenetan itxia

Ongi para bestak!
T. 948 638 170
Albistur, 63B LESAKA



LESAKAKO

BESTAK 2013

MIKEL UBIRIA
eskabazioak
garraioak
ONGI PASA BESTAK!

Burgana 8 - 31770 Lesaka
T. 948.637.302 | 619.716.322 | 608.779.641

TRANSTXAKAIN
TRANSTXAKAIN S.L.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

EKO TXAKAIN S.L.

GAIKAKO HONDAKIN BILKETA

Gora San Fermin |

T. 669 840 198 / 948 638 052
Faxa: 948 627 578
Otsango Ind. 28 • LESAKA
transtzakain@yahoo.es

Gora San Fermin |

udana
salazones

Importazioho
bahaila, gazitua,
gezatua
eta kongelatua

Alkaiaga Ind. • Lesaka
Tel.: 948 631 536 • Fax: 948 631 550

esarte

Santiago 83 B bajo
31700 Elizondo
T 948 581 907
www.precocinadosesarte.com

Irantzu PASTOR | Programaren azal lehiaketako irabazlea

«Argazkigintza egoera batzuk salatu eta gizartea kontzientziatzeke bidea izatea nahi nuke»

Argazki kamera soinean hartuta, hara eta hona ibili ohi da Irantzu Pastor lesakarra. Iazko bestetan ateratako argazkien artean bila aritu eta bat moldatuta osatu du *Sanferminak Zintzilik* lana, aurtengo bestetako programaren azal irabazlea. Argazkigintza du afizio eta ofizio. Klika bakoitzarekin, argazki eder bat baino gehiago bilatzen duela dio **«argazkigintzak funtzio soziala bete behar duela sinisten dut. Egoera batzuk salatzeke eta gizartea kontzientziatzeke bidea da. Baina baita, mundua erakusteko nire modua ere»**. Bere ikuskera ez da Euskal Herrira mugatzen, Guatemala, Palestina eta Kolonbian ere izana baita. Han eta hemen ateratako argazkiekin erreportajeak osatzen ditu medioentzat. Kolonbia du bereziki gogoan **«hiru aldiz egon naiz bertan, azkenekoz sei hilabetez, babes internazionala egiten»**. Bere egitekoa mehatxatuta dauden eragile sozialei fisikoki laguntzea zela azaldu digu **«ez ditzaten beraien giza eskubideak zapaldu, bitartekari lanak egiten ditugu. Gobernu Kolonbiarrari giza eskubide internazionalak bete behar dituela gogorarazteke modua da»**. Eguneroko zurrumbilotik ateratzen diren argazkiak egitea du helburu **«hain agerikoak ez diren egoerak bilatuz, medio masiboetan ageri ez diren egoera eta begiradak jasoz»**. Ejerzitoaren erasoan aurrean, babes internazionalak beraien sarea martxan jarri eta gertakariak nazioarte mailan ezagutzera emanen dituztela erranda, **«presioa egiten diegu eta eskubideen zapalketa ez gertatzea bilatzen dugu, Kolonbia nazioartean itxurak mantentzen saiatuko delako»**. Muturreko egoerak, zuzenean bizitzeak, gatazkaren bertzelako ikuspegi bat izateko aukera eman diola dio, izan ere **«alde batetik, bonbardaketak, gatazka zuzen hori dago, medioetan masiboki ikusten dena. Agerikoa den horren azpitik ordea, hain ebidentek ez diren lotura batzuk daude»**. Gatazkak protagonista desberdinak dituela ere ikasten omen da **«punta puntako bonbardaketa hori, nahiko maskulinoa da. Itzalean geratu ohi dira bertzeak. Baina, gatazkaren azpiegiturak barnetik aztertzen dituzunean, ikusten duzu emakumeek**



ARGAZKIA: IRANTZU PASTOR
Irantzu Pastor argazkilari lesakarra.

oreka
nutrizioa eta dietetika belardenda

NUTRIZIOA ETA DIETETIKA
SANDRA LEGASA Dietista-nutrizionista
OSTEOPATIA - MASAJEAN
ITZIAR SANTAMARIA Osteopata
HOMEOPATIA
ZURIA DORRONSORO Homeopata
TERAPIA HOLISTIKOA
JOSETXO TORIBIO

Arretxea, 7 LESAKA
T. 948 63 73 73
orekanutrizioa@hotmail.com
www.orekanutrizioa.com



ikaragarritzko papera betetzen dutela, gehienbat gatazken erresoluzioetan. Horregatik, atzerrian boluntario edota argazkilari lanetan aritzeko, «**herrialde bakoitza ulertzea** -funtsezkoa dela azpimarratzen du- **ohiturak, barne funtzionamendua ezagutu behar dira eta bertan bizitakoak ere lasai aztertu behar dira, ikusitakoa, bizitakoa nola azaldu asmatzeko**». Kolonbiako egoera berezia baita «**batetik ejerzito nazionala dago eta bestetik paramilitarismoa dago, gero eta barrenerago sartu orduan eta gehiago konplikatzen da gauza**». Egoera surrealista bizi izan ditu, baita gogorrek ere «**horrelako lan bat egiteko, lasaitasuna mantendu behar duzu. Ez gaudelako hagitz ohituak adibidez, ejerzitoko buruzagi batekin hitz egiten**». Kolonbian bizitakotik azpimarratuko luke batez ere, «**ezagutzen dituzun pertsonak, aditzen dituzun testigantzak. Egunero jarraipenak, mehatxuak... jasaten dituzte, baina hala ere borrokan jarraitzen dute**». Guzti hau «**betiko barruan gelditu eta zer pentsatua ematen dizu**». Berritoren ere Kolonbiara itzuliko litzatekeela dio «**bake eztabaidekin zer gertatuko den jakiteko**». Aldaketak luze joko duela uste du «**badakit egun, egoerak jarraitzen duela berdin edo okerrago eta konponbidea ez dela egun batetik bestera gertatuko**».

«**Nazioarteko gatazka zuzenean bizitzeak, beste ikuspegi bat edukitzeko aukera ematen dizu, hain agerikoak ez diren loturak topatzeko**».

Hala dio, «**bakea ez da, gerra ezaren sinonimoa**». Herrialdeak prozesu bat pasako beharko duenez, «**fase honen amaieran, bertatik bertara jakin nahiko nuke nola dagoen egoera**». Etorkizunean, «**bertze herrialderen bat ezagutzeko gogo badut**» aipatzen du. Tarteka gogoratzen omen zaio lantzea gustatuko litzaiokeen gairen bat eta orduan, hasten da «**dirua biltzeko zer egin beharko lukeen pentsatzen**». Datozen egunetan hala ere, maleta armairuan utziko du, zapi gorria lepoan jantzi eta «**lesakarrontzat hain bereziak diren egunetan gozatuko dut**». Eta ia seguru erran genezake, aurtengoan ere, ez duela argazki kamera etxean utziko.



ARGAZKIA: IRANTZU PASTOR

Sei hilabetez babes internazionala egiten aritu da Kolonbian.

eh
HOTELchurrut

Churrut jatetxeak besta zoriontsuak opa dizkizue eta urte osoko gure menuak ezagutzera gonbidatzen zaituztegu:

- Eguneko menua asteleheneratik ostiral eguerdira arte (14,00€)
- Asteburuko menuak (25,00€)
- Taldeentzako menuak
- Jaunartze, ezkontza... menuak
- Menu pertsonalizatuak eta neurrira egokituak
- Sasoiako produktuekin osatutako karta

Foruen plaza | BERA | tel.: 948625540
www.hotelchurrut.com

Deigual

Ongi pasatu Sanferminetan!

bixkiak
KIROL ETA MODAKO arropa denda

Arretxea, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110

kattagorria
lentzeria mertzeria

Perlan plusak
Jantzi tipikoak
Euskal Herriko produktuak

%10 dantza taldeentzat eko deskontua

Ezagutu gure online denda!
www.kattagorria.com
Bohiko plaza 10 Lesaka T: 948 627 514

Ongi pasatu bestak!

Otxoteko
PINTURAK ELEKTRIZITATEA

Bizkaia, 15 - 31770 LESAKA
Tel. 948 637 902
Juan Luis 678 993 818 - Jon 687 147 466
www.otxotekopinturak@yahoo.es

OND EGUN PERMANENTE

ONGI PASA BESTAK!

««««HIRUKIDE»»»»

Eguzki panelak ◀▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀▶
Aire egokitua ◀▶

T./F. 948 625 395
Alkaiaga Ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

intzuri
OPTIKA

BITTIA 28, 31770 LESAKA
telefonoa 948 627 550

San Fermin
onak opa dizkizuegu!

Lesaka-Bera
AUTOESKOLA

ESKANTZA BEREZIAK

Giabomen guztiak
Giabomera euskaraz ateratzeko aukera

ONGI PASATU BESTAK!

Ezlegara, 12 BERA • 948 630 652
Ituruzubiko plaza, 8 LESAKA • 948 637 870

IREKI
LEIHOAK

Aluminio R.P.T / PVC | Pertsianak | Toldoak
Itxidurak | Kontraleihoak | Barandak | Berandak

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 630962 F. 948 625400 H. 31780 BERA
irekileihoak@irekileihoak.com • www.irekileihoak.com



GOZOTEGIA
HAIZEA
BOLLERIA
KAFETEGIA

T. 948 63 80 36
Plaza Zaharra, 7
LESAKA

LESAKAKO

BESTAK 2013

Beñardo GOIETXE | Lesakako Euskaltegiko Irakaslea

«Euskaltegiarendako oroigarri polita izanen da bestetako altxaferoa botatzeko aukera izatea»

IKA euskaltegiari eskaini diete bestetako altxaferoa botatzeko aukera eta *«propo-samena hagitz gustura hartu dugu, ez baita halako aukerarik maiz izaten»* aipatu digu Beñardo Goietxe Euskaltegiko irakasleak. *«Orain arte geurekin euskara ikasi eta hobetu duten, edo orain horretan ari diren herritarrendako eta IKA euskaltegiarendako oroigarri polita izanen da»* gaineratu du. Ibilbide luzea du atzean euskaltegiak *«70eko hamarkadan gau-eskolak hasiak baziren ere, 1983an sortu zen AEK-ko euskaltegi moduan, eta 1989an IKAko euskaltegi bihurtu zen»*. Hogei urte pasa dira Beñardo euskaltegian ikasten hasi eta EGA gainditu ondotik irakasle lanean hasi zenetik. Erabakia hartu zuen *«funtsean, ama hizkuntzarekiko maitasunak eta maite duzun hori partekatzeke, zabaltzeko eta irakasteko gogoak bultzatuta»*. Geroztik dio *«euskararen urak bideak egin ditu»*. Urte hauetan didaktikoki esperientzia eta sendotasuna hartu duten arren, euskararen normalizaziorako bidea oraindik luzea dela aipatzen du *«ekonomikoki gero eta juxtuago gabiltza Nafarroako Gobernuaren jarrera eskasa dela eta»*. Ikasle kopurua, *«jaietsi egin da hondarreko hamar urteotan eta eskola euskaldundu denez gero, euskararekiko beharrak ere aldatu egin dira»*. Inguruko herrietan bezalatsu, eta adinaren edo jatorriaren arabera, euskara erabiltzeko, ikasteko eta hobetzeko beharra sentiaraztea da bere ustez premiarik nagusiena. Horretarako, *«instituzioen laguntza eta bultzada ere behar-beharrezkoa da»*. Beratarra izanik, Lesakako sanferminak garai batean *«gau-parrandan»* bizi omen zituen. Azken urteotan berriz, *«parrandaren orde euskara barnetegietako lanetan, eta aurten euskaltegiak bestetako Matxinbeltzenean irekiko duen ostatu-jatetxean lanean»* arituko da. Bertara agertzeko gonbitea luzatu du *«giro ederrean tragoxka bat hartuz euskaltegiari laguntza emateko»*.



UTZITAKO ARGAZKIA
Beñardo Goietxe, Euskaltegiko irakaslea.



Mariasun OSKOZ | Antoiu ostatuko jabea

«Barraren gibelego aldetik azkarki eta denetatik ikusten da, ezin guztiak kontatzen hasi»

Duela zazpi urte hartu zuen bere gain, aranztar honek Antoiu ostatuko ardura. Basoerdi eta kafeez gain, zorte apur bat ere banatu zuen apirilean, loteriako zenbaki saritua bertan saldu zuelako. Kontent dago, **«jende aunitzeri tokatu zitzaion, ez diru kantitate handia baina bai pixkoat. Egia erran, egoera dagoen bezala nik uste denok bage-nuela zuloaren bat eta hura tapatzeko ederki etorri zela. Orain berriz esperoan gaude, ea noiz etortzen den bertze kolpe on bat»** erran digu irrifartsu. Ez zitzaion erretiroa hartzeko adina tokatu ordea eta sanferminak lan egunak izanen dira aurtengoan ere berarentzat. Goizeko seietan irekitzen du taberna, eta laister hurbiltzen zaizkio gautxoriak **«gosaldu edota azken aurreko tragoa hartzera»**, bertze ostatuak istean, Antoiurako bidea hartzen baitute bestan dabilzian aunitzek. Hala ere gehienak, **«ura eskatu eta zakua betetzera etortzen dira, ordurako indarrak akituta izaten dituztelako»**. Asteburuan **«gehienbat kanpoko jendea»** eta **«astez herritarrak»** hurbiltzen zaizkio. Bien arteko aldeaz galdetuta, **«sake handiagoko jendea da bertakoa, plater konbinatua behar dute asetzeko, bokadilloa aukeran gutxiegi»**. Xolomo, arrautza eta patatez gainezka dauden plater aunitz zerbitzatzen omen dituzte **«eta gose askorekin datozenentzat urdaiazpiko eta xolomo misto bat»**. Anekdotak pila bat bizi izan dituela erraten du, **«barraren gibelego aldetik azkarki eta denetatik ikusten da, ezin guztiak kontatzen hasi...»**. Lesakarren izaeraz galdetuta aitortu digu, **«zirikatzaile mortalak dira bertakoak, baina badakite zein den muga, ongi hartua didate puntua eta baita nik beraiei ere»**. Aukera edukiko balu, **«besta»** eginen omen luke **«eta baita zubi gainekoa ikustera ere joan»**. Baina batzuek, gozatzeko bertzeek lana egin behar dutenez, **«Antoiuko barraren gibelean zain izanen»** omen dute, **«Lesakako sanferminetan besta egin edo ongi gosaldu nahi duten guztiak»**.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA
Maite Oskoz, Antoiu ostatuko jabea.

OSIÑA
Arropa denda
Albistur, 3 · LESAKA
T. 948 637 951

ONGI PASA BESTAKI
Andreen arropa
Gizonen arropa
Gazteenizat arropa
Osagarriak

KOXKONTA *Jatetxea*

Sanferminetako menu berezia
- Karta -

Zuzendaritza berriak besta zoriotsuak opa dizkizue

T. 948 627 519 • 948 627 503
Otsango auzoa, 1 • LESAKA

Urdis Lesaka
SERVICIOS DEPORTIVOS / KIROL ZERBITZUAK

Lesakako udal kiroldegia

Gora san fermin eta ongi pasa bestak!!

T. 948 637 400 • LESAKA • lesaka@urdis.com

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE

Jai alai eta pozgarriak izan itzazuen

Plaza Zaharra - 948 63 72 87
LESAKA

antxordoki
ANIZPAK
ILEAPAINDEGIA eta ESTETIKA

- Aurpegirako tratamenduak
- Ximurren betetzea
- Oxigenazioa
- Tratamenduak termooestimulazioaren bidez
- Zelulitis
- Tonifikazioa
- C bitamina
- ...
- Erreduktorea
- Sabelondoa
- Depilazio elektrikoa eta zerarekin
- Laser Diodo
- Solarium-a
- Ezkontza eta bestatako makillajea
- Pedikura
- Manikura

Albistur 39 LESAKA tel. 948 637 703

Kontsultatu gure eskaintza bereziak

BERA

IKASTAROAK → 16 URTETIK GOITIKOEI ZUZENDUA

Helduentzako dantza ikastaroa antolatu du aurten ere Gure Txokoak

Uztailaren 1ean gelditu dira frontoian, entsaioen egunak zehazteko

deak helduentzako dantza ikastaroa. 16 urtetik goitiko guzietan zuzendua dago, dantzazten ez dakitenei edo ia ez dakitenei eta plazetan dantzazten diren euskal dantzak (Arinarin eta fandangoa, zortzikoa, Larraindantza...) irakatsiko dituzte.

Uztailaren 1ean, astelehen arratseko 20:00etan elkartuko dira Eztegarra pilotalekuan eta bertan erabakiko dituzte entsaioen ordutegiak. Izen emateko lehenbiziko entsaio horretara agertzea aski izanen da.

TTIPI-TTAPA

Herriko bestetan plazan egiten diren dantzaldietan edozeinek aukera izatea bertan jotzen diren kantuak dantzatzeko eta ondorioz plaza dantzari betetzeari. Helburu horrekin antolatu du aurten ere Gure Txokoa dantza tal-

Bestetako kartela aukeratzeko bozketa

Berako bestak iragarriko dituen kartela bozkatu ahal izanen da ekainaren 28ra arte, ortzirala.

Bozkatu ahal izateko, nahitaezkoa da gutierrez 16 urte izatea, Beran erroldatua egotea eta NAN, pasaporte edota bizileku txartela izatea. Herri bozketan parte hartzeko aski da www.berakoudala.net webgunean sartu eta 2013ko bestetako kartela aukeratu hautatzea.

Hip-hop ikastaroa antolatu du Labiaga ikastolak

12-16 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako udako hip-hop ikastaroa antolatu du Labiaga ikastolak udalaren laguntzaz. Uztailaren 3, 4, 5, 11 eta 12an emanen da Kultur Etxean, 11:30etik 13:00etara. Izen emateko 012 telefonora deitu behar da eta 10 euro ordaindu beharko dira. Ordeinketa, ikastaroaren lehenbiziko egunean egin beharko zaio irakasleari.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jesus Alacid omendu du herriko saskibaloit taldeak

Aunitz zor dio saskibaloit taldeak Jesus Alacid Clementeri. 1999an, hutsetik abiatuta, mutiko talde bat entrenatzen hasi zen eta bi urte beranduago, kadete mailako Toki-Ona Bortziriak saskibaloit taldea sortu zuen. Aurten, 70 bat neska-mutiko lehiatu dira Berako taldearen izenean kategoria ezberdinetan eta bertze 30 neska-mutiko baino gehiago ari dira kategoria ttikiagoetan entrenatzen. Heldu den denboraldian taldea uzteko asmoa duela eta, omenaldia eskaini diote Beran Jesus Alacid-i. Ekainaren 8an, 3x3 saskibaloit partidak jokatu zituzten kiroldegian eta gero Altzateko frontoian 110 bat lagun bildu ziren bazkaltzera. Bazkalondoan ezusteko omenaldi hunkigarria jaso zuen Jesus Alacidek. Hain zuzen, gaur egungo talde ezberdinen eta garai bateko jokalariren artean egindako bideoa ikusi zuten. Gero, koadroa eta txapela eskaini zizkioten Alacid-i.



UTZITAKO ARGAZKIA

San Migel zubia marrazten ari dira ikastetxeetako ikasleak

Ikastetxeak San Migel Zubiaren Lagunekin elkarlanean ari dira Kultur Etxeko murala osatzen, zubiko gudaren bigarren mendeurrenako ekitaldien baitan. Ikasle bakoitzaren marrazki bakoitza, zubiaren harri bat da eta honela, pixkanaka osatuko dute paperezko San Migel zubia. Gisa honetara, ikasleek herriko historia ezagutzeaz gain, bigarren mendeurrenako ekitaldietan ere parte hartzen dute. Ortziral honetan solasaldia eskainiko du Fernando Mikelarenak.



KONTZERTUAK → ESKOL-TTIKIKO APARKALEKUAN

LesakAntuz emanaldia eskainiko du Musika Bandak ortziral honetan

Euskal kantu zaharrak aditzeko aukera izanen da 22:00etatik aitzinera

Aitor AROTZENA

Urtero egiten duen bezala San Ferminak baino lehen kontzertu bat prestatu du Udala Musika Bandak. Ekai-

naren 28an, ortziral arratsko 10:00etan izanen da LesakAntuz emanaldia Eskol Ttikiko aparkalekuan. Euskal kantu zaharren kontzertu bat izanen da, gonbidatu ezberdinekin. Bertzeak bertze, trikitalariak, soinulariak, txistulariak, Ezpelur gaiteroak, bertso eskola, Josune Makibar, Inma Albusua eta Xabier Barriola igoko dira oholtzara musika bandakoekin batera.

SANFERMINAK

Txoznetan ere egitarau zabala

TTIPI-TTAPA

Udalak prestatutako ekitaldiez gain, txoznen gunean ere egitarau zabala prestatu dute bestetarako. Uztailaren 5ean, ortziral arratsaldeko 6etan botako dute txupinazoa eta 19:00etan euskal preso eta iheslarien aldeko manifestazioa izanen da. 20:30ean gazte aldarrikapen poteoa eginen da, Ttek elektrotxarangarekin eta 23:00etan kontzertuak Skakeitan eta On taldeekin. Uztailaren 6an, 20:00etan *Batin eginen dugu!* gazte manifestazioa deitu dute. Uztailaren 7an, 20:00etan kontzertuak Pikunk eta Underroots taldeekin. Uztailaren 9an, bertsolari gazteekin bertso poteoa, gazte afaria eta irrintzi eta karaoke txapelketak izanen dira. Uztailaren 10ean, azkenik, udalak antolatutako herri bazkariarekin bat eginen dute eta txoznen itxiera eginen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

XXX. Txoko-Txiki lehiaketetako sariak banatu ditu ikastolak

Tanturumairu ikastolak antolatutako XXX. Txoko-Txiki ipuin eta ilustrazio lehiaketako sari banaketa egin zen ekainaren 12an. Ikastolako bertso eskolakoekin emanaldia eskaini zuten, Estitxu Arozenaren gidaritzapean eta Oskar Estangak bere kantuekin saioa alaitu zuten eta sariak banatu zituen. Ipuin lehiaketan hauek izan ziren irabazleak: 1. mailan Lexuri Arotzena Portu, 2. mailan Oihana Arruti Terreros, 3. mailan Maddi Igoa Apezetxea, 4. mailan Ainara Etxeberría Terreros, 5. mailan Iratxe Muxika Karrion eta 6. mailan Kattalin Odriozola Muxika. Ilustrazio lehiaketan, 1. mailan Oihan Urroz Oiarzabalen lana saritu zuten; 2. mailan Imanol Mesa Garmendiarena; 3. mailan Aimar Igarzabal Jaunsarasena; 4. mailan Izaro Iparragirre Irigoienena; 5. mailan Garazi Migeltorena Mitxelenarena eta 6. mailan Leire Pagadizabal Igarzabalena.

Kontzertua eskaintzen den bitartean edaria salgai izanen da eta nahi izanez gero, bakoitzak bere afaria ere eraman dezake.

FLASH

Berriz Partzuergoan

2006an ateratzen zen Bertizko Partzuergo Turistikotik udala eta orain, berriz ere sartzeko eskaria egin du ahobatez. Xeberiano Txopereña izanen da udal ordezkaria.

Itsaso Fagoaga

Uztail hasieran Grandan jokatu den Munduko Kopan arituko da Itsaso Fagoaga. Ezustean baina gogotsu hartu du nazioarteko proban aritzeko gonbitea Fagoagak.



ARGAZKIA: JUANJO GUERRERO

I. Marrazketa lehiaketa arrakastatsua

19 helduk eta 25 neska-mutikok parte hartu zuten Beti Gaztek ekainaren 9an lehen aldiz antolatutako marrazketa azkarra lehiaketan. Herriko Javier Igoa eta Juan Carlos Pikabea eta Baztango Tomas Sobrino margolariek osatu zuten epaimahaia. Helduetan, lehen saria Beasaino Jokin Telleriarentzat (argazkian) izan zen, bigarrena Eibarko Esteban Oroz izan zen eta hirugarrena Ermuako Jon Idigoras. Herriko margolari onenaren saria Jone Tabernak jaso zuen. Ttikienetan, A kategorian Jontxu Urrusolo izan zen irabazle eta aipamen berezia izan zen Lexuri Arotzenarentzat. B mailan, Leire Pagadizabalek irabazi zuen eta Román Lopez eta Nahia Sanchezek aipamen berezia jaso zuten.

XATURETXEA
JATETXEA
T: 948 637 260 · LESAKA

BOBEKO
FRAN AURTZA · LESAKA
Txoa: 948 637 826

BIDASOA
TELURAK - PERTSEANAK
ESTROBEAK - AUTOMATISMOAK
MEKATRIKAK - BERNIPRINTA
T.F. 659 971 442
BERA

J. RAMOS
zolak akutxilatu eta barnizatzen ditut
Sakeleko: 637 836 023 · LESAKA

ETXALAR

KULTURA → EUSKARA BATZORDEAREN ESKUTIK

‘Mugaldekoak’ filma eskainiko dute frontoian

Ortziralean
22:30ean

Irune eta Itsaso

Zati batzuk Etxalaren grabatuak dituen *Mugaldekoak* filma eskainiko dute ekainaren 28an, ortziralean 22:30etik aitzinera frontoian. Euskara batzordearen eskutik eskainiko da.

Gantxilo tailerra

Gasna Ferian gantxilo tailerrean ikasturtean zehar egindako lanek arrakasta handia izan zuten; ia gauza guztiak saldu baitziren. Ortziralean 18:30etatik 21:00ak ingurura arte, nahi duen guzientzat

idekia dagoen tailerra da (dohainik). Partaide guztiak maila berdintsa ailegatzen direnean “elkarproiektua” egiten da. Animatu!

Udalekuak

Uztailaren 1ean hasi eta uztailaren 26ra arte udaleku idekiak izanen dira. 11 hurreko taldea osatu da eta eskola zaharretan egiten dituzte. Aurtengoan Ainhoa Munarriz eta Oihana Mitxelena izanen dira begiraleak.

Parrokiaren jabetza erregistroan

Urtarrilean eliza bezala, maiatzean bertze hauek paratu dira Ja-

betza-Erregistroan Etxalarko Parrokiaren izenean: Erretorenea, eliza ondoko lorategi eremua, lehen hilerri izana, eta Sta. Krutz ermita.

Haurren eguna

Aurtengoan lehenengoz haurren eguna ekainaren 14 eta 16an ospatu zen. Bi egunetan Landagain eskola idekia egon zen bisitariarentzat eta hainbat ekitaldi egin zituzten ikasleek eskolan. Igandean XXV. Ipuin topaketa ospatu zen. Zikloka ipuinak irakurri ondoren, ipuin bana oparitu zitzaizkien ikasleei. Bazkalondan ipuin kontalaria eta plazan egin zituzten jokoekin egunari akabera eman zioten.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Aurtengoan bi eguneko ospatu dute Haurren Eguna herriko neska-mutikoei.



ARGAZKIA: BENANTXIO ELIZAGOIEN

Umore Eguna Larraburuan

Ekainaren 9an umore eguna izan zen Larraburuan. 40 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzeko eta Gilermo Seguiolaren txisteekin gozatzera. Bazkalondan txistek eta Xalbador Madariaga eta Jose Manuel Igoaren akordeoi doinuak tartekatuz giro ederrean bukatu zuten eguna.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Sendotza egin dute 15 gaztek

Ekainaren 9an sendotza egin zuten 15 gaztek: Xabier Gallardon, Imanol Vicente, Aitor Danboriena, Oier Iturria, Unai Altzuguren, Iñaki Gallardon, Izaro Iribarren, Miren Lasaga, Itsaso Elizagoien, Beñat Iparragirre, Amaia Zelaieta, Goiatz Iturbide, Nerea Iparragirre, Joseba Irazoki eta Xabier Sanzberro.



ARGAZKIA: ARANTXA BIZENTE

Gitarra entzunaldia Berako Musika Eskolan

Maiatzaren 23an gitarra entzunaldia antolatu zuten Berako musika eskolan. Lehen aldiz Etxalarko 4 musikariz osatutako talde batek parte hartu zuen: Beñat Iparragirre ahotza eta gitarrarekin, Itsaso Elizagoien ahotza eta trikitixarekin, Markel Iturria gitarrarekin eta Andoni Iribarren bateriarekin. Etxalar Taldea izenarekin aurkeztu ziren eta beraiek asmatutako *Eskerrik asko* kantua jo zuten.

ANTZUZELAI S.L.
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587
Inongo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angelusk, oma antzinakoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tximiniak, entalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

USOA
Nekazari kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da
Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 8AN

Eskolaren mendeurreneko besta gogoan hartzekoa izan da

Juanita Larralde eta Sagrario Iparragirre omenduak

Nerea ALTZURI

Ekainaren 8a egun go-
goangarria izan zen herriarentzat. Eskolaren 100. urteurreneko besta izan zen. Hainbat herritarrek, modu batean nola bertzean, auzolanean egindako lanaren fruitua izan zen eta egun ederra ateratu zen. Egunaren aitzineko, egun bereko eta geroko lanak egiteko herritarren partehartzea haundia izan da eta zinez eskergarria.

Garai bateko irakasle eta ikasleek elkarrekin solasteko eta garai bateko

gertaerak oroitzeko tarte ugari izan ziren. Guzura ia 40 irakasle eta irakasle ohi bildu ziren; belaunaldi ezberdinetako dozenaka ikasle eta ikasle ohi... Giro berezia izan zen.

Goizeko aurkezpen ekitaldia eskolako patio-ko gorapean abiatu zen. Aitor Elexpuru eskolako zuzendariak gidari lanak egin zituen; Jaime Iburria alkateak eta Martin Legarra apezak ere hitz batzuk eskaini zituzten, eskolaren eginbeharra gorai patuz. Ondotik, herriko haurrek *Axura* etxalartarrak bere garaian Arantzako eskolako lanez egindako bertsoak kantatu zituzten: *Las eternas obras de la escuela de Aranaz*. Urte aunitz iraun zuten eskolako lanek.



ARGAZKIAK: N. ALTZURI ETA G. PIKABEA

Egun ederra ateratu zen ekainaren 8a.

Mendeurreneko logo berria ezagutzeko aukera ere izan zen, Mikel San Roman artistak egin. Irudiari erreparatu, jakinduriaren sinbolo den hontza ageri da, eta enborrak eta hontzaren begiek 100. urteurrena islatzen dute. Horrez gain, berri ona jaso zuten herritarrek alkatearen ahotik. Eskolako eraikina ttiki gelditu

da eta haunditze lanak egiteko azkeneko trami-teak egitera doaz eta udan, gela berri bat egiteko lanak egin nahi dituzte.

Segidan, gimnasioan argazki eta material erakusketaz gozatu zuten guziek. Sebastian Lizaso eta Millan Telleria bertsolariak kantatu eta gero, dantzari eta txistularien saioa izan zen. Trikitilariak kalejira egin zuten.

omenaldia jaso zuten. Herriko kantariak, akordeiolariak eta bertsolariak ere aritu ziren. Egun honetarako egindako kanta ere kantatu zuten. Arratsean pintxoak eta ogitartekoak izan ziren eta Agerraldek arratseko giroa alaitu zuen.

Igerilekuak

Igantziko Udalarekin egindako akordioa dela eta, arantzarekin igantziaz- rren tarifa bera izanen dute Igantziko igerilekuetan. 4-10 urtekoek 18 euro ordainduko dute, 11-18 urtekoek 28 euro eta 18 urtetik goitikoek 40 euro. Izen-ematea udaletxean.

OMENALDIA

Ia 300 bazkaltiar bildu ziren frontoian. Bazkalostean, Juanita Larralde 37 urtez irakasle denak eta ia 25 urtez sukaldaria den Sagrario Iparragirrek



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

Elizetako garbitzaileen bidaia Urbasa aldera

Ekainaren 6an, elizak garbitzeagatik sari gisa, urtero bezala, ateraldia egin zen. Herrikoak eta igantziaz- rren autobus batean Urbasa aldera joan ziren. Lacturale lantegia eta Señorío de Sarria bodega bisitatu zituzten, bertzeak bertze.

BERA Zere inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinoarra, armiarma, kukuxu...) eta erratoi xogutuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zain, 42 A • BERA

kulki
zure herriko jailetan
Tel. 948 552 171
www.kulki.org

sarobe
gozotegia dindaga

Pr de erlegara 25 bajo 1948 63 08 99
31700 berain (navarra) www.sarobe.net

ZUBIONDO
Jatetxea

agardotegia jatetxea

Alasta karrika
TEL: 948 625 474 BERA NAFARROA

BORTZIRIAK

GIZARTEA → LILA PUNTUAREN AURKEZPENA EGIN ZUTEN EKAINAREN 14AN

Erasoen kontrako informazioa eskainiko zaie emakumeei Lesakako Sanferminetan

Informazio stand-a paratuko da ortziral eta larunbatean Herriko Etxeko arkupetan

TTIPI-TTAPA

Emakumeen aurkako indarkeria kasuak saihesteko kontzientziario kanpaina egiteko eta erasoren bat gertatuko balitz salatze eta informazio zuzena eskaintzeko lila puntua jarriko du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Berdintasun Alorraren bidez, Lesakako Sanferminetako asteburuan, ortziraletan eta larunbatean.

Orain artean salaketarik izan ez arren, emakumeen aurkako eraso eta jarrera bortzitzak bizi izan dira azken urteotan Lesakako Sanferminetan, zehazki eraso



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Lila puntua aurkeztu zuten Lesakako Herriko Etxean.

saiakera bat eta drogen erabilera, hartzaileak kontzientzia galtzen du, erasotzaileak erraztasun guztiak izateko. Jokin Apezetxea, Mankomunitateko teknikariak ekainaren 14an egingo dako agerraldian aipatu duenez, «bai eraso edo drogen erabilera, badirudi gure ingurutik kanpo gertatzen diren gertakizunak direla, bai-

na Lesakako Sanferminetako asteburuan ere, masifikazioaren ondorioz, horrelako esperientziak bizitu direla jakinarazi eta salatzeaz gain, etorkizunekoak Lila Puntuaren bidez ekidin nahi ditugu». Teknikariarekin batera, Bortzirietako udal ordezkariak eta Toki Ona institutuko irakaslea ere izan dira agerraldian.

Kanpaina honen barnean, kontzientziario liburuxka bat ere banatuko da TTIPI-TTAPARENkin batera Bortzirietako 2.500 etxetan. Sanferminetako standeko ere boluntarioak lortu nahi dituzte. Hortaz, ortziral edo larunbatean turno egin nahi dutenek 948 635036 telefonora deitu edo ssb@lesaka.net helbide

elektronikora idatz dezakete. Xorroxin Irratiaren bidez 3 kuña ere grabatu dituzte, ostatueta jarri eta kanten tartean kontzientziario bidaltzeko: "Edozein erasori aintzin egiteko gai zera, ez izan beldurrik, erran ezetz"; "Serplasta o baboso no es ligar, es agredir", eta "Kasu eman edalontziakin, deus bota ez diezazuten". Asteburuan ibiliko den bestabuseko tiketak ere lila puntua eramanen dute.

Kanpaina honen birtartez, mezua transmititu nahi zaie emakume nahiz gizasemei. Gizonek jakin behar dute ezetza ezetza dela eta horrelako gertaerak ikusten dituztenean ezetz errateko ere animatu nahi dituzte. Emakumezkoek dagokienez, ezetz errateko eskubi-dea dutela gogoan izan behar dute eta jarrera aktiboa izatera animatu nahi dituzte.


MANKOMUNITATEAREN ETA LESAKAKO ETA BERAKO UDALEN KANPAINA

Aurtengo bestak jasangarriagoak izanen dira Bortzirietan

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Mankomunitateak, Bera eta Lesakako Udalek, Nafarroako Gobernuak CRANAREN bitartez, Ecoembes eta Ecovidrio hainbat ekintza sustatzen ari dira jasangarritasuna bermatzeko. Hauen artean *Bestetan ere, birziklatu* kanpaina azpimarratu behar da, bestetan hondakinen bilketa berezia egiteko helburuarekin. Iniziatiba hau hondakin aunitz (beira eta ontziak batez ere) sortzen dituzten 35 bat ostatu, jatetxe eta txoznetan inguruan egingen da batez ere. 2012ko abenduan hostalaritzako establezimenduetan egin zen inkesta batean in-

formazioa eta azpiegitura hobetzeko beharra antzeman zen. Horren harira, *Bestetan ere, birziklatu* kanpaina martxan jarri zen. Kanpaina honen barruan ostatu, jatetxe eta txoznei informazioa helarazteko bisita bat egiten zaie, bilketa zerbitzu berriaren inguruko argibideak emanaz eta sensibilizazio materiala banatuz. Berritasun nagusia beiraren bilketa zerbitzu berria izanen da, zeinetan ostatueta beira atez ate bilduko den asteburuan zehar Lesaka eta Beran. Hori egin ahal izateko, alde aurretik Bortzirietako Mankomunitateak beiraren bilketarako edukiontzia bereziak banatuko ditu.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Edalontzi berrerabilgarriak iazko Berako bestetan.

Ekintza hauek osatzeko bizilagunei informazioa helaraziko zaie aldikari lokalak, bestetako programa, e.a. erabiliz. Parte hartzen duten establezimenduak errekonozitu eta saritzeko asmoz, "birziklapenaren batukada" kaleetan zehar ibiliko da. Batukadak bere ibilbidean zehar birziklapenarekin konpromisoa erakutsi duten ostatu eta aipamen berezia egingen die, uztailaren 9an Lesakan eta abuztuaren 6an Beran.

GIZARTEA → ESKOLAK ETA KULTUR BATZORDEAK

Solaslagunak eta euskaltegiko ikasleak sarituko dituzte aurten ere

Euskaraz eginen den kultur emanaldi batera gonbidatuko dituzte

Joxean ORTEGA

Aurtengo ikasturtean, ia zkoan bezalaxe, asko izan dira Euskaltegira euskara ikastera joan edota Solas Laguna egitasmoan parte hartu dutenak. Ikasturte amaiera iritsita, egingako ahaleginak saria izanen du. Ikasle, irakasle eta bolondresei beren gogoia eta euskararen alde egindako

apustua eskertu nahi diete Udaletxeko Kultur Batzordeak eta Igantziko Eskolak. Hala, Eskolak eta Guraso Elkar-teak Euskaltegian parte hartu duten ikasleen gurasoei matrikularen zati bat ordainduko diete. Horrekin, gurasoei diruz laguntzeaz gain, datorren urteari begira, egoera berdinean dauden eskolako bertze gurasoak euskara ikastera animatu nahi dituzte.

Udal Kultur Batzordeak, bere aldetik ere sarituko ditu. Uda honetan euskaraz egingo diren kultur emanaldietako batera gonbidatuko dituelako. Emanal-



ARGAZKIAK: JOXEAN ORTEGA

Ikasturte bukaera jolasean ospatu dute eskolako ikasleek

Ikasturte bukaerako besta ospatu zuten eskolako neska-mutikoez ekainaren 19an. Denetik izan zuten eskolako azken egunean: bazkaria, karts eta gisakoe-tan ibiltzeko aukera frontoian, puzgarriak... Irala arte!

diak, Bortzirietan, Gipuzkoan edota Nafarroan eginen dira. Egitasmo hauekin urtetik urtera, geroz eta jende gehiago animatzea nahi dute.

Auzolana

Uztailaren 1etik auzotilerat martxan para-

tuko du auzolana Udalak. Horregatik, alde aurretik, etxe guztietara auzolanaren araudia eta zonaldeak azalduko diren idazkia bidaliko du. Norbaitek zalantzarik balu, udaletxera hurbildu, eta bertan emanen zaizkio azalpen gehiago.

Azpiegituretarako inbertsioak

Nafarroako Toki Inbertsio Planaren barnean herrian egin beharreko bi lan onartu ditu Nafarroako Gobernuak: Unanuko depositora doan bidea zolaberri-zea eta hilerriaren handitze lanak egitea.

KONPONKETAK
ere egiten ditugu

BORTZIRIAK
expert

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 - 31780 Bera - 948 630377 - 948 631091 - info@bortziriak.com - www.bortziriak.com

ERROTAR
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

ERROTAR
harategia
Bertako
produktuak
Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

SUNBILLA



ARGAZKIA: NIEVES BIURRARENA

Ekainaren 6an, ura sartu zen farmaziako etxean.

GERTAERAK → EURITEEN ONDORIOZ

Urek gainezka egin dute bi aldiz ekain hasieran

Farmazian ura sartu zen ekainaren 6an

Maidar PETRIRENA

Ekainaren 6an ordu laurden batez bota zuen euri erauntsiaren ondorioz Farmazia dagoen etxean eta farmazi-

an ura ausarki sartu zen. Goiko argazkian, Kale Nagusiak zer itxura hartu zuen ikus daiteke.

Ur kontuekin segituz, asteburu guztia euria gelditu gabe bota ondoren, ekainaren 9an, Bidasoa erreka urak ia bere bidetik atera ziren.



ARGAZKIA: ZALDUA

Lau herritar Malerrekako pilota finaletan

Errekaren eguna aprobetxatuz, ekainaren 7an hainbat ekitaldi egin ziren eta hoiien artean Malerrekako XI eskuz banakako finalak. Bertan 4 sunbilarrek parte hartu zuten. Benjamin talde batean Beñat Iriarte Azpitxapeldun gelditu zen. Benjamin kategoriko C1 taldean Enaitz Portuk ekarri zuen txapela eta azkenik C2 taldean aurrez aurre bi sunbilarrek jokatu zuten bigarren aldiz finala eta oraingoan Pablo Irazoki suertatu zen txapeldun eta Xuban Zelaieta berriz azpitxapeldun. Argazkian, Jaunarena, Bengoetxea VI eta Barriolarekin ageri dira.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Ekainaren 9an, bere bidetik ia atera egin zen Bidasoa.



ARGAZKIAK: ANA BELEN AGERREBERE

Ikasturtea akitzeko museoa antolatu zuten eskolako ttikienek

Ikasturtea akitzeko, eskolan Haur Hezkuntzako 1, 2 eta 3 mailakoak eta LH 1. mailakoak museo ttikia antolatu zuten frontoiko geletako batean. Bertan ikasturtean egindako lanak erakusgai zeuden. Zorionak eta uda on ona pasa.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Dantza taldearen ikasturte bukaerako berendua

Ekainaren 12an Ulibeltzak elkartearen dantzetara joaten diren haur guztiek merendola izan zuten Marikruz irakasleak antolatua. Orain deskantsu pixko bat eta gero berriz ere ensaioak herriko bestei begira. Eskerrik asko Marikruz.

GIZARTEA → UZTAILA ETA ABUZTUAN

Udalak ludoteka eta Errekak kirol eskola eskainiko dute uda honetan

Udalak lehen aldiz eta Errekak 13. edizioa

TTIPI-TTAPA

Erreka elkarteak, Herriko Etxearen laguntzaz, Udako Kirol Eskola antolatu du aurtien ere. Zonaldeko haur eta gazte aunitzek parte hartzen dute azkeneko urteetan eta aurtengoan hamahirugarren edizioa beteko du. Kirol ezberdinak lantzen dira eta uda pasatzeko bertze modu bat eskaintzea du helburu.

Astelehen, asteazken eta ortziraleroko egunen da, uztailaren 10etik abuztuaren 2ra. Eskoletako frontoian eta kiroldegian izanen dira, 11:00etatik 12:00etara talde batean, eta 12:00etatik 13:00etara bertzean. Prezioa 33 eurokoa izanen da bazkideentzat, eta 36 eurokoa ez direnentzat. Ize-

na emateko Itziar Jorajuria monitorearekin harremanetan jarri behar da (699 572 515 telefonoan edo itziarjorajuria@hotmail.com e-posta helbidean.

Bertzetik, udalak 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako ludoteka zerbitzua eskainiko du eskolako gimnasioan uztailaren 1etik abuztuaren 30era, larunbat eta igandetan izan ezik, 9:00etatik 13:00etara. Bertzeak bertze, jarduerak igerilekuan eta euskaringelaz egiten dute, tituludun hezitzaileen eskutik. Izen emateko epea ekainaren 25ean akitu zen, baina gerta liteke oraindik leku libreak izatea. Kuotei dagokienez, hamabost egunerako 80 euro ordainduko behar da, hilabete bako 125 euro, hilabete terdiko 200 euro eta bi hilabete bako 250 euro. Deskontuak ere eskainiko dituzte.



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Errekaren Eguna zoragarria izan zen

Errekaren Eguna zoragarria izan zen ekainaren 8koa. Ortziraletik izan ziren ekitaldiak, eta bereziki larunbatean egun bikaina izan zen. Pilota, judoa, mendia, dantza eta eskubaloia uztartu zituzten, Elkartearen sekzio guztien lana plaza-ratzeko. Ortziralean, Igor Agestak mendi eskaladari buruz emandako proiektioaren ondotik, mus txapelketa jokatu zen. 29 bikote aritu ziren eta Nuria eta Imanolek eraman zituzten bi urdaiazpikoak etxera, finalean Eduardo Oiarzabal eta Juan Mari Artazkoz-i irabazita. Larunbat goizean ttikiaren mailako eskubaloia partida ederrak ikusteko aukera izan zen. Eguerdian erakustaldia eskaini zuen Judo Eskolak. Arratsaldean benjaminen eskubaloia partida eta gero jende aunitzek espero zuen partida jokatu zuten aurtien jubentzetan aritu direnek Errekako jokalariei ohi beterranoen kontra. "Zaharrak" aitzinetik ibili ziren kasik partida osoan, baina azkenean Txomin eta Iban Mindegiak prestatutako gazteen sasoia nagusitu zen. Gero, Triangular handia jokatu zen Erreka A, Erreka B eta Izarren Taldearen artean. Azken honetan ezin izan zuen Niko Mindegiak jokatu, Espainiako selekzioarekin konbokatua baitzegoen. Partidak hasi baino lehen, omenaldia eskaini zitzaion aurtien kopan txapelkun eta ligan azpitxapelkun izan den infantilen taldeari. Gero, Errekako jokalariek koadro baina eman zioten azken bi urteetan entrenatzaile izan diren Felipe Ganboa, Patxi Ganboa eta Luismi Apezetxeari. Partiden artean Errekako dantzariak erakustaldia eskaini zuten eta hainbat zozketa ere egin ziren. Santa Luzia Plazako karpan egindako herri afarian 130 bat lagun bildu ziren. Bertze omenalditxo bat ere egin zen afarian, Jabiartxo Almandoz diruzainaren lana eskertuz.

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

Kimetz Belardenda

• DIETETIKA: dieta pertsonalizatuak, elektroakupuntura pisu-grasa-likido kontrola, quantum bio...
• APITERAPIA
• MASAJEAK: iridologia, quantum SCIO, terapia emozionala, familia konstelazioa...
• SHIATSU MASAJEA

Uztailaren 10ean

5 urte
betetzen ditugull!
Ospatzeko dendan
deskontu bereziak
eskainiko ditugu
Irekiak:
10:00-19:00

T. 948 451 473 | Leitzako errepidea, 3 DONEZTEBE | www.kimetzbelardenda.com

ZUBIETA

OSPAKIZUNA → EKAINAREN 15EAN

85 lagunek paella jan zuten gazteen festan

Oihan Larretxea eta Jose Antonio Loiarrek irabazi zuten aizkora apustua

Fermin ETXEKOLONEA

Valentziarrekin izandako hartu-emanaren ondorioz, gazteen festa egin zen ekainaren 15ean. Gustura ibili ziren egun osoan, batez ere valentziarrek mimo handiz prestatutako paella jan eta gero.

Ekitaldi guziak ez ziren egin, baina bai gehienak. 85 lagun bildu ziren bazkarian. Aizkora apustua ere egin zen eta Oihan Larretxea eta Jose Antonio Loiarrek batetik eta Ander Erasun eta Mikel Indakoetxeak bestetik, saio ikusgarria eskaini zuten. Beraz, herriko aizkolari bat etorkizun handiko aizkolari gazte banarekin aritu zen. Azkenean, Larretxeak eta Loiarrek juxtu-juxtuan irabazi zuten.

Gazteek lan asko egin zuten eguna ongi



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Valentziarren paellak arrakasta handia izan zuen.

atera zedin eta laguntzaileak ere izan zituzten, beti eskua botatzeko prest. Egun polita osatu zuten denen artean. Estalpeko ostatuan ere gogotik aritu ziren lanean gazteak eta egun osoan giro polita jarri zuten.

Ospakizunez betetako asteburua

Uritzako fiesta larunbatean eta igandean San Juan bezpera ospatu zen. Berendu-afaria egin zen plazan guraso eta hurrekin, bakoitzak berea eramanez.

Ospakizun kontuekin segituz, aipatu Udala eta herriko gazteak festetako ekintzak lotzen ari direla poliki-poliki. Musika kontuak eginxeak daude, baina beste ekitaldiekin ere aberastu nahi dute egitaraua.

ELGORRIAGA

GIZARTEA → HERRIKO LANGILEEN ESKUTIK

Aterpe gisara erabil daiteke dagoeneko Ixurneko borda

Lehengo harriak erabili dituzte obra egiteko

Mattin LARRALDE

Duela hilabete batzuk hasi ziren herriko langileak berritik Ixurneko borda altxatzen. Horretarako lehengo harriak erabili dituzte eta lan txukunaren ondo-

rioz, orain aterpe moduan erabiltzeko moduko borda dotorea ageri da.

San Juan sua

Azken urte hauetan egin den bezala, San Juan suarekin batera berendu afaria izan da aurten ere. Bakoitzak zerbait eraman etxetik eta denon artean afaria osatu zen. Ondotik, zahar eta gazte denok sua-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Itxura ederra hastu du Ixurneko Bordak.

ren gainera salto egin eta txarra uxatuz ibili ziren. Su handia behar zuen, txar guzia ongi uxatzeotan.

Elgorriagako berri Telebistan

Navarra Television telebistako Ttanttaka

saioan Elgorriaga azaldu zen ekainaren 13an. Herriari buruzko hainbat jakingarri pantailaratu zituzten.

GIZARTEA → UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

Udan ludoteka eta udalekuak eskainiko dituzte

Izaro Ariztegi eta Ixiar Bazterrika dira monitoreak

Arkaitz MINDEGIA

Udalekuak edo ludoteka zerbitzuak eskainiko dituzte uztailean eta abuztuan. Herriko bisneskei, Izaro Ariztegi eta Ixiar Bazterrikak aurkeztu zuten egitasmo hau eta herriko 14 haur apuntatu dira.

Goizetan izanen dira, 10:00etatik 12:00etara eta gisa guzietako ekintzak antolatu dituzte: jolasak, ateraldiak herrian eta herri inguruan... zerbitzua aurrera eramateko, udalak lokal bat utzi die bisneskei, lehengo medikuaren kontsulta.

Behikaka boletok salgai

Uztailaren 27an ospatuko da Behikaka zozketa Elizondon, Xorroxin irratia ren alde. Bertan parte hartzeko boletok badira herrian, Tresenea hotel-ostatuan eta Altxunea erretegian. 5 eurotan daude salgai, animatu, izugarrizko hiru lote daude eta jabearen zain.

San Juan suak

Nahiz eta berri hauek idazterakoan oraindik egun batzuk falta, gure herriko xokotan hainbat eta hainbat su piztekoak ziren San Juan suaren aitzakian. Aurreko egunetan han eta hemen kartoiak, paperak... gordetzen eta biltzen ibili ziren gaz-



UTZITAKO ARGAZKIA

Javier Sein fuerte dabil mendi bizikletan

Jabier Sein txirindulari gaztea fuerte dabil. Ekainean pare bat lasterketa korritu ditu mendi bizikletarekin, bai Euskadiko BTT openean eta Caja Ruraleko kopan. Ekainaren 9an Legution izan zen Euskadiko Openeko lasterketako bosgarren proba. Nahiz eta eguraldia ez zuten lagun izan eta ibilbidea ez zegoen egoera onean, Jabierrek irabazi egin zuen. Bestalde, Caja Ruraleko kopako bosgarren proba Tuteran izan zen ekainaren 16an eta Erriberako hiriburuan ere txukun aritu eta irabazi zuen Seinek. Ondorioz, Euskadiko Openean eta Caja Ruraleko kopan lider doa. Ekainaren 23an Caja Ruraleko kopako seigarren proba jokatu behar zuen eta lasterketa honek Nafarroako txapelketarako balioko dio. Animo beraz!

tetxoak. Iturenen herriko plazan biltzeko ohitura dute herritarrek suaren aitzakian merendu bat egiteko, gero su gaitetik saltatzeko. Aurti-

tzen ere berdin ibiltzen dira, suen inguruan saltoka.

Duela urte batzuk aurtiztarrek aspaldiko bertze ohitura bat be-

rreskuratu zuten. San Juan bezperako afaria ekainaren 22an ospatu zuten elkartean, giro eder eta politean pasatuz arrats partea.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

2013 UDABERRI- UDAKO KOLEKZIO BERRIA
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

BEINTZA-LABAIEN



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Arzuagatarrak Itur-Ondo elkartearen atarian.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 15EAN

Arzuaga familia elkartu da Itur-Ondo elkarteko bazkarian

Beasainetik Amerikan barna herri askotan zainak hedatu ditu

Arantxa ITURRALDE

Ekainaren 15ean, Arzuagatarrak elkartu ondoren, itur-ondo elkartean bazkaldu zuten.

Garai batean Inaxio Arzuaga (Beasaingo, Garin auzokoa), Ameri-

ketara joan zen. Bertan, Urrozko Mariezkurreneko alaba ezagutu zuen. Biek ezkontuta, Urrozera bizitzera etorri ziren. Handik aurrera, Mariezkurrenea baino gehiago, Arzuagaren etxea



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Beintza-Labaiengo lau neska-mutikok lehen jaunartzea egin dute

Ekainaren 2an, Beintza-Labaiengo lau haurrek egin zuten lehenengo jaunartzea. Argazkian ikus daitekeen bezala, Errandoneko Nerea eta Iker anai-arrebak, Karakoetxeko Jon eta Danbolinbordako Jokin ageri dira.

bezala ezaguna da. Etxe horretatik, herri askotara hedatu ziren familiako zainak: Oiartzun, Errenteria, Zarautz, Bilbo, Boroseneko Labaien, Mikolaneko Saldias, Lezo, Irun, Donostia...

Egun ederra pasatu zuten famili artean garai bateko arbasoen istorioak kontatzen.

ESKUALDEA

Turismo garapenerako laguntzak banatuko ditu Nafarroako Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu-ko Kultura, Turismo eta Harreman Institutu-onaletarako Departamentuak 434.000 euroko dirulaguntza banatuko du 12 elkarte, 11 toki erakunde eta 7 kontsorzioren artean, turismoaren garapenerako.

Eskualdeari dagokionez, Dantxarineko Merkatar, Ostalari eta Zerbitzuen Elkartek, Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiak, Cederna-Garalur elkarteak, Bertizko Partzuergo Turistikoak eta Plazaolako Partzuergo Turistikoak jasoko dituzte dirulaguntza horiek.

DONAMARIA

GIZARTEA → EMAKUMEENTZAT ARIKETA FISIKOAK IZANEN DIRA

Chi kun tailerra eskainiko da uztailaren 13 eta 14ko asteburuan

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Uztailaren 13 eta 14ko asteburuan tailer batzuk egingen dira, non ariketa fisikoak izanen diren emakumeentzat. Nahi izanez gero 13an bakarrik egin daitezke. Ariketa fisiko horiek Chi kun izena dute, Txinatik etortzen den teknika bat delako. Chi: oina-

rrizko energia eta Kun: zaindu eta sustatu.

Tailerra emanen duenak aipatu digunez, «gure oinarritzko energia zainduko dugu, bereziki aldaketa hormonalekin zerikusia dutenak, gure bizitzako fase ezberdinetan. Hau da, hileko arengatik ditugun aldaketak, haurdunaldia,

haurdunaldi ondorengo eta menopausia».

Oinarritzko ariketa batzuk ikasiko dituzte, gero norbere etxean praktikatzeko ahal direnak, bakarrik edo taldean. Astearen behin gelditzen dira Donamarian praktikatzeko. Ariketa suabe hauek, adin guztientzat egokiak dira, »eta

lagunduko digu gure gorputza sano egoteko eta gure ziklo ezberdinak lasaitasunean igarotzeko». Tailerra Raymond Mayer-ek (<http://www.zhongfu.fr/>) ematen du. Informazio gehiagorako, deitu Cristina: 677934352 - 948451520 edo e-postara idatzi: info@kibai.es.

NATURA → HIRU ORDUZ EGIN DAITEKE ITZULI ZORAGARRIA

Zortzi ur-jauzi eder ikus daitezke Basakaitz aldean

Horietako bik 50 metro baino gehiagoko eroria daukate

Fernando ETXEBERRIA

Duela egun batzuk Basakaitz ingurutik ibiltzeko aukera izan nuen, Tito Gorostiaga lagunarekin batera. Inguru hori natural-natural mantentzen da, ia ukitu ga-

be. Hiru orduz egin daiteke itzulia, bide zoragarri batetik, zortzi ur-jauzi baino gehiago dituen erreka ondoan: horietatik bik 50 metro baino gehiagoko eroria daukate eta beste bi zuzenean ateratzen dira menditik, bidea zeharkatuz.

Alemaniko Oihan Beltzaren inbidiarik ez duen baso xarmangarriak bere kondairak eta

istorioak ere baditu, lamiak bizi omen zireneko kobazuloa ba omen du eta. Lamirik ez, baina argazkian ageri den metro terdiko sugearrekin topo egin genuen txangoan. Tito Gorostiagak bere makilean abildadez jarri zuen eta gero aske utzi zuen sugetzarra, hainbat euri egunen ondotik atera zuen eguzkiarekin gozatzeko aukera izan zezan.



ARGAZKIAK:

FERNANDO ETXEBERRIA

Basakaitz inguruko zortzi ur-jauzietako bat. Behean, Tito Gorostiaga, metro terdi luze zuen sugearrekin.

EHIZA KONTUAK ALDATU EGIN DIRA

Garai batean saritu eta orain zigortu egiten da

F. ETXEBERRIA

Txantxangorri ehiza elkarrekin urteko batzara egingo du, bide eta postuen lanekin hasteko eta diru-sarrerak eta gastuak onartzeko.

Aspaldiko garaietatik ehiza izan da ezkurarren "kirol" edo afiziorik ohikoena. Florencio Idoate Iraguireren *Rincones de la Historia de Navarra* liburuan ager denez, Ezkurra-koek ehiztari onen fama izaten zuten eta jauntxoek gonbidatzen zituzten ehiza-ateraldiak gidatzera.

XVI. mendean hartzak bazeuden inguruan. 1549an hartz haundi batek 50 zerri hil zituen eta herriak dirutza ordaindu zien bi ehiztari adituri hura hiltzeko. Hartza zulo izene-

ko kobazuloa ere bada. Udal artxi-boan animalia "kaltegarriak" hiltzeagatik ordaindutako sarien berri ematen duen agiria bada. 1.500 pezeta ordaindu ziren otso bat hiltzeagatik eta 200 azeri batengatik. Halere, sari gehienak sugeak edo zapelatzak hiltzeagatik ematen ziren. 1959an, ehiztari elkarrekin eskari bitxia egin zuten, abelzaintza, ehiza eta arrantza kaltetzen zuten animalia izurriteak desagertarazteko batzordea osatzea eskatuz. Eskariaren arabera, alkateak, apezak, maisuak, bi ezkurarrak eta bi ehiztarik osatuko lukete. Garaiak aldatu dira eta orain, sari ordez zigorrak izaten dira animalia hauek hiltzen dituztenentzat.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



ARRATE ETETIKA ZENTROA

 **%10eko**
DESKONTUA
Skeynodor Eternal kremetan



GAZTE OIHUA

GIZARTEA → GAZTE MUGIMENDUA

Komunikazio Astea antolatu zuten Lesakan

Ekainaren 17tik 22ra egin dute

GAZTE OIHUA

Ekainaren 17tik 22ra Lesakako Ernaiko kideek komunikazio astea antolatu zuten. Izan ere, gazte mugimendua indartsu egoteko, komunikazioak garrantzia handia duela eta, honen hainbat arlotan sakondu nahi izan dute. Astelehenean serigrafia tailerra egin zuten Malerrekako gazte asanbladako bi kideren es-

kutik. Asteartean berriz, irrati tailerra egin zuten Xorroxinen. Asteazkenean bideoak egiteko ikastaroa egin zuten eta ortzegunean kartelak egiten ikastekoa. Ortzi-ralean berriz, mahai ingurua izan zuten Arranon. Lehenik Gazte Oihuaren aurkezpena egin zuten. Izan ere, orain arte TTAPI-TTAPA aldizkari- an ia urte batez gazteek argitaratutako orria izan da gazte oihua, baina proiektu hau zabal- tzeke asmoa erakutsi dute gazteek. Hala,



UTZITAKO ARGAZKIAK

Serigrafia tailerra egin zuten Malerrekako gazte asanbladako bi kideren eskutik.

udan zehar eskualdeko herrietan barrena eztabaida prozesu bat zabalduko dutela jakinarazi dute, gazteek nolako komunikazio proiektua behar eta nahi duten azaleratzeko.

Honen ondotik mahai ingurua izan zen "ko-

munikazioa gazte mugimenduan" izenpean Topatu.info webguneko Iraitz Salegi eta Gutzon Elizbururekin. Haulak komunikazioaren garrantzia azpimarratu eta eraginkorrak izateko hainbat aholku eman zituzten.

Azkenik, larunbat goizean igerilekuko paretan mural bat margotu zuten.

Gogotsu gelditu dira Lesakako gazteak, eta gazteriari "antolatu eta komunikatzeko aldarria" zabaldu nahi izan diete.

ELIZONDON EGIN ZEN EKAINAREN 15EAN

Alde hemendik egun arrakastatsua

TTAPI-TTAPA

Ekainaren 15ean Alde Hemendik eguna antolatu zuen Baztango Ernaik. Baztanen eta Euskal Herriaren dauden polizien kopurua salatzeke eta bereziki Guardia Zibilaren gisako indar okupatzaileak soberan direla eta hemendik lekutzeko aldarrikatzeko. Goizean Tortura Euskal Herriaren dokumentala eman zuten gaztetxean eta, ondotik, eguerdian, 50 gazte inguru bazkalterat elkartu ziren. Atsaldean herriaren barne kalejira eta jokuak egin zituzten. Modu horretan, Elizondoko foruzainen komisaldegirat maletaz beteriko orgattoarekin hurbildu ziren, bertatik joateko eskatuz. Komisaldegaren ondoan foruzai-

netaz gain Guardia Zibila zeuden eta tentsio momentu aunitz bizi izan ziren. Poliziek hainbat gazte identifikatu zituzten. Gazteen nahia Guardia Zibilaren kuartelerat ere maletekin hurbiltzea zen, baina azkenean ikusitakoak ikusita ez ziren joan.

Ernai arroltzeak salgai Malerrekako

Malerrekako Ernaiko kideek sistema berritzailera asmatu dute dirua ateratzeko. Auzolanaren bitartez oilotegi bat eraiki eta bertako oiloek errundako arraultze ernailogikoak salduko dituzte. Hitz jokoak egin nahi izan dute Ernai antolakundea eta arroltze ekologikoak direla aldarrikatzeko.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Diztela eguna ospatu dute Leitzan

Diztela Eguna ospatu zuten ekainaren 15ean Leitzaan ere. Indar polizialak ez dituztela ez Maxurrenaren ez inon nahi aldarrikatu zuten.



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colón Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

SADA OITZ

POSADA OITZ



%10eko
DESKONTUA

ARKUPEAK → UDAZKENEAN EGINEN DITUZTE

Sendabelar ikastaroarekin segitzeko asmoa dute jubilatuek



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Sendabelar ikastaroan parte hartu duten bazkideetako batzuk.

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteak segitzen du bere bidaia eta jarduerekin. Frantses eta sendabelar ikastaroak bukatu berri dituzte, baina sendabelar ikastaroan aritu diren batzuk gai sakontzeko asmoa azaldu dute, bi ikastaro egiten dituzte udazkenean: bat orokorra, azkenea bezalakoa eta bestea gai sakontzeko.

Beste aldetik, pedikuroaren (callista) gela ere prestatzen ari dira egoitzan, bilera-aretoaren zati batean eta abuztutik aitzinera bertan hartuko ditu tratamendua nahi duten bazkideak.

Hurrengo alean, Saioarako mendi ateraldiaren eta Añana eta Gasteizeko bidaien berri emanen dugu. Uztaillean, Machu Picchurako bidairako aurreinskripzioa egin dutenekin ere bilera egiten da.

ESKULANAK

Eratsungo Malerrekako Egunean ikusi ahal izan zenez, Arkupeak elkartearen bazkideen artean egiazko artistak badaude eskulanak egiten. Guziekin hitzegin eta erakusketa egiteko asmoa du elkarteak.

Bukatzeke, elkartearen besta behar bezala antolatzeke, aurten 85 urte edo Urrezko Ezteiak betetzen dituztenek ekainaren 30a baino lehen jakinarazi behar dute elkartearen.

Auto Asegurua

"Zure autoak aseguru on bat merezi duelako..."

Javier Aramendiak, Caja Rural-Seguros RGA taldeko nafar txirrindulariak, errepidean erakusten du ez dela gutxierekin konformatzen. Ez bizikletan, ezta bere autoan ere.

Auto Asegurua Rural Kutxan duela, hots, Rural Kutxa Taldeko Seguros RGA Aseguruen estaldura zabalenekin eta baldintza ekonomiko onenekin.

...bat egin ezazu talde seguru batekin"

Galdetu gure edozein bulegotan. **Aseguru on baten atzean talde on bat** baitago beti.

Sigueros, Funciona

Talde seguru bat

LEITZA

GIZARTEA → MANIFESTAZOIA EGIN ZEN HILAREN 8AN

Maxurrenea herrintzat aurrera darrai

Sinadura bilketa kanpainako paperak desagertu direla salatu dute

JM BARRIOLA

Urte honetan Maxurrenea etxea herriari itzultzeko aldarria ozen zabaltzen ari da Leitza-kaleetan. Horren harira ekainaren 8an eguerdi aldean, manifestazio jendetsua egin zen. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, aterki azpian babestu eta hirure-

hun herritar baino gehiagok bat egin zuten Maxurrenea herrintzat aldarriarekin.

Bertzalde, kanpaina honen aurkako ekintzak gertatzen ari direla ansalatu dute herritarrek, denda eta tabernetan jarri ziren sinadurak biltzeko paperetako batzuk desagertu eta herri-jarritako pankartak lapurtu edo apurtu dituztelako egun hauetan.

Ekainaren 15ean, ditzela lelopean, "alde hemendik" kanpainarekin bat egin zen herriari. Goizean batzarra burutu zuten eta ondoren manifestazioa. Arratsaldean Iñigo Cabaca-



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Ekainaren 8ko manifestazioa eta herrian apurtu dituzten pankartetako batzuk.

sen kasua azaldu zen dokumental batean eta gauean kontzertua izan zen gaztetxean Matxura taldearen eskutik.

Webgune berriak

Nafarroko Iparraldeko Euskara Mankomunitateak webgune be-

rria du. Informazio ugari eta landua eskaintzen du: besteak beste, euskararen inguruan, gure mankomunitate osatzen duten herrietaz, euskaraz lan egiteko tresnak eskeintzen ditu, agenda kulturala bistaratu liteke. Interesatuak

www.iparmank.org ataria bisitatu dezakete.

ALKE Leitza Kultur Taldeak ere webgunea berritu du. Oraindik edukiz osatzen ari badira ere, bitxikeria ugari ikusi litezke dagoeneko www.leitzakultura.net helbidean.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Erreka garbitzen auzolana

Urtero bezala, Amazabal institutuko ikasleek, erreka bazterretatik zaborrak biltzeko auzolana egin dute. Guztira berrogei ikasle inguru aritu dira lanean, hondakin eta zaborra ugari bildu eta erretiratu dituzte. Honen trukean ikasbidaia egiteko dirulaguntza emanen die Udalak. Ekimen honen bidez, herriko bazterrak garbitzen ari dira poliki-poliki, garai batean bota ziren zabor pila izugarriak desagertaraziz eta bazterrak txukunduz. Udalaren ustez, herriko ingurumenari eta bizi-kalitateari bultzada ederra ematen diete gaztetxoek eta bide batez hondakinek sortzen dituzten kalteak ikusten dituzte.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Bosgarren Sagardo Eguna euripean

Aurten ere izan da sagarrekin egindako mama goxoa probatzeko aukera ekaineko bigarren asteburuan. Ostiralean Jakoba Errekon-dok hitzaldia eman zuen, Euskal Herrian sagardoak izan duen tradizioaz eta munduan zehar egin duen zabalkuntzaz. Larunbatean, euriagatik, karrapean antolatu behar izan zuten sagardo dastaketa. Halere, jende asko hurbildu zen 21 sagardogileren sagardoa probatzera. Guztira 500 edalontzi banatu ziren eta 630 botila hustu. Iaz baino gutxiago izan arren, ALKEko kideak pozik daude emaitzarekin. Euriak ikaratu gabe, asko izan zirelako barrena sagardo z bustitzera gerturatu zirenak, pesta hau oso gustoko duten seinale!

TURISMOA → EKAINAREN 14AN AURKEZTU ZUTEN

Urumea arnastu proiektuan bat egin dute lau herrik

Bailara osoko eskaintza turistikoa zabaltzeko helburuarekin

TTIPI-TTAPA

Turismoa bultzatzeko proiektu bat jarri dute martxan Goizueta, Arano, Hernani eta Ereñotzuko herriek: Urumea arnastu. «Helburua da, herri mugak gainditu eta bailara osoko eskaintza turistikoa zabaltzea. Herri txikiak elkarlanean arituta, aukera gehiago dugu zentzu honetan ere garatzeko», azaldu zuten ekainaren 14an udal horietako alkate eta ordezkariak, Ereñotzun egindako proiektuaren aurkezpenean. Goizuetatik Pablo Miranda alkatea eta Pili Apezetxea eta Izaskun Bakero zinegotziak izan ziren aurkezpenean eta Aranotik Joxean Ruiz zinegotzia.

Nafarroa eta Gipuzkoak bat egiten duten inguru naturalean kokatzen da proiektua, hau da, Urumeako goi bailaran eta natur turismo eta turismo aktiboarekin erlazionaturako ekintzak izango dira eskaintzaren ardatz nagusia: inguruko mendiak, parke naturalak, kirolak... «Bizia emango dio bailarari eta beste bailaretako eskaintzetatik

desberdinduko gaitu», azaldu zuten. Horrez gain, gastronomia, kultura, ondare historikoa... ere landuko dira. Aurrea begira, pakete moduko eskaintzak ere egingo dituzte elkarrekin.

Proiektuaren hasieran besterik ez daudela azpimarratu zuten udal ordezkariak eta lanean jarraitzeko asmoa azaldu. «Itsaso alderagoko eta Nafarroa barruragoko herrietara zabaldu nahi dugu proiektua», azaldu zuten.

WEBGUNEA

Proiektuaren hasierako fruitua izan da, hainbat euskarri martxan jartzea. Marka sortu dute, eskuorriak prestatu dituzte informazio orokorarekin (Turismo bulego eta informazio guneean eskuragarri daude) eta webgune bat egin dute: www.urumeaarnastu.com.

Webgunea 6 ataletan banatu dute: turismo aktiboa, turismo kulturala (jaiak, kirola, monumentuak...), ezagutu herriak, galeria eta prestatu zure bidaia (ostatuak, jattetxeak, aterpeak...). horrez gain, beste bi atal daude: esperientziak eta kirol probak. Agenda ere eskuragarri dago eta sare sozialekin lotuta, facebooka egin dute. Euskarri horiek denak Bizibizirik egin ditu.



ARGAZKIA: HERNANIKO KRONIKA

Ekainaren 14an egin zen Ereñotzun 'Urumea arnastu' proiektuaren aurkezpena.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Umore Ona abesbatzakoak Arraun Ligaren aurkezpenean

Goizuetako Umore Ona abesbatzak, Hernaniko Kantuz eta Ereñotzuko Ozenki eta Trintxerpeko Illunbe abesbatzekin batera kantatu zuen Donostiako Kursaalaren ekainaren 8an egin zen ACT Arraun Ligako aurkezpenean. Ekainaren 22an, berriz, Hernanira joatekoak ziren Aurorak kantatzera hernaniar eta ereñotzuarrekin batera.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Kurtso bukaera Aralar Musika Eskolan

Aralar Musika Eskolako ikasleek ikasturte bukaerako kontzertua eskaini zuten ekainaren 7an Goizuetako Herriko Etxeko Ganbaran.

ARESO

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN AZKEN ASTEBURUAN

Paxakari buruzko hitzaldia eta erakustaldia eskainiko dituzte San Pedroetan

Ostiral eta larunbatean eskea egingo da etxez etxe

Juana Mari SAIZAR

San Pedroak aste-buru honetan ospatuko dira herrian eta aurten berrikuntza bezala paxaka kirolari buruzko hitzaldia eta erakustaldia izango ditugu. Paxaka trinketeetan jokatzeko den kirola da, tenisaren antzera jolasten da baina eskuekin, sare antzeko raketa bat jarrita. Areson orain ezagutzen

dugun plazaren aurretik Zapaiteneko paretan zen herriko plaza. Garai hartako plazaren ezaugarriak erakutsiko dizkigute. Hitzaldiaz gainera, paxaka erakustaldia ere egingo da.

Egitaraua bestela hauxe izango da: Ekainaren 28an arratsaldean herriko eskea egingo da eta 21:00etan Lagun Artekoren afaria. Ekainaren 29an 09:00etan gosaria egingo dute Lagun Artekoe eta 10:00etan Meza nagusia izango da. Handik aterata baserrietako eskea egingo



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Giro ederra frontenis txapelketaren lehen partidetan

Frontenis txapelketa hasia da eta oraingoz lehen kanporaketak jokatu ostean zortzi bikotek jarraitzen dute lehen. Aitzaki horrekin larunbatean jendea bildu da plazan partidak ikusi eta animatzera, eta egia esan, lehenbiziko txandako partiduak borrokatuak eta dibertigarriak izan dira. Partehartzaileek serio hartu dute lehia eta txapelketarako prestatzeko astez iluntzetan bikote asko entrenatzen aritu dira eta txapelketako partidak amaitutakoak umeak eta gazteak beren raketekin jolasean aritu dira. Azkenean saltsa asko sortu da herrian eta aspaldiko arratsalde zaratsuenak ikusi ahal izan ditugu plazan, poza ematen du aspaldi egon ez den giroa sortu dela ikusteak. San Fermin ostean hasiko dira bigarren txandarekin.

da eta 16:30an Paxaka hitzaldia eta erakustaldia izango da plazan. Ondoren musika egongo da eta gauean 21:30an herri afaria Pake Tokin. Ongi pasatze-ko aukera bikaina.

Herriko lanetarako langilea

Udaran herriko lanetan aritzeko langile bat kontratatuko du udalak, horretarako Enplegu Bulegoan apuntatuta

egotea beharrezkoa izango da eta azterketa bat egin ostean aukeratuko da nor izango den langile berria. Asmoa uztailaren erdi alderako azterketa egin eta lanean astea da.

ARANO

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 27AN

Arkume jatea egingo da aurten ere herriko festetan

Hilabete bukaeratik aurrera eros daitezke txartelak

Ainhoa ANSA

Lehengo urtean egin zen saiakerari segituz, aurten ere arkume jate-

ak leku berezia izango du herriko festetan. Festetako larunbatarekin egingo da, uztailaren 27an, eta herrian bertan ekoizitako produktuak izango dira protagonistak.

Herritarrek antolaketako bileretan elkartzeko hasita daude eta zehaztasunak fintzen jo-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Arkume jaterako txartelak lehenbailehen gordetzea gomendatu dute.

ango dira, baina aurreratu daitezke txartelak hiltzen bukaeratik aurrera erosi ahaliko direla eta lekua gordetzeko

iaz bezala lehenbailehen ibiltzea gomendatzen du herriko festen batzordeak. Haurrentzat ere menua izango

da hala nahi duenarentzat. Informazio gehiago nahi duenak herriko Kontseju tabernara deiz dezake.

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 5ETIK 8RA

Mariatxia izanen dute Azpilkuetako Sanferminetako egun handian

Julio Soto eta Iñaki Aleman ariko dira zikiro jatean

TTIPI-TTAPA

San Fermin bestak bestak ospatuko dituzte Azpilkuetan ere, egitarau zabalarekin:

ORTZILERIA, UZTAILAK 5 BEZPERA

- 19:00: Txupinazoa.
- 19:30: Frontenis txapelketaren finala.
- 21:00: Ezkil-jotzea.
- 21:30: Baztanzopak, Joxe Angel Elizalde alaiturik. Ondotik gau-pasa herriko plazan.

LAUNBETA, UZTAILAK 6 HAURREN EGUNE

- 10:00: dianak herriko karrketan barna.
- 16:00: puzgarriek.
- 16:30: Mus tximista txapelketa.
- 17:30: haurrendako txokolatada.
- 20:00-22:00: dantzaldia Gau Enarak taldeak alaiturik.
- 22:00 tortilla lehiaketa eta afarie.



ARGAZKIA: AINTZANE MARIEZKURRENAK UTZIA

Plazan dantzatzeko aukera ederra izanen da aurten ere Azpilkuetako Sanferminetan.

- 00:30-04:30: gaupasa Gau Enarak taldeak alaiturik.
- 07:00: gosarie eta lotsa guti dutenentzat purtzipartola laisterketa.
- 12:00: luntxa herriko elkarteak.
- 14:00: Gazte bazkaria.
- 16:00: Partxis lehiaketa.
- 20:00: Diego Quevedo mariatxiarekin kantaldia.
- 21:30: Dantza Jazz erakusketa herriko neskatzen eskutik.
- 08:00: Su piztea.
- 09:00: gosarie.
- 10:00: dianak herriko karrketan barna.
- 14:00: Zikiro jatea Iñaki Aleman eta Julio Soto bertsolariekin. Ondotik dantzaldie Frantzisko Santxotenaren eskutik
- 22:00: afarie eta dantzaldien Frantziskorekin gorputzek aguantatu arte. Bestak akitzeko "gaixua ni".

ASTELEHENA, UZTAILAK 8 ZIKIRO JATEA

FLASH

Baratze sozialak eskatzeko epea

Baratze sozial eta ekologikoak eskatzeko epea ireki du Udalak uztailaren 10a bitarte. Lehendik interesa erakutsi zutenei gutun bat bidali zaie berriz ere udal bulegoetan izena eman beharko dutela adieraziz. Baratzeak, ordenantzetan zehaztutako irizpideen arabera banatuko dira.

50 urtez apez Almandozen

Goizuetan sortua bada ere, 1963an etorri zen Ramon Apezetxea Almandozera eta geroztik herriko apezada. Oronoz-Mugairiko San Martin eskolako zuzendaria ere izan zen bere garaian. Herrian eman dituen 50 urteak gogoratzeko eta eskertzeko ospakizuna antolatu dute almandoztarrek ekainaren 30ean. Egundorietan Sanpedroak ere ospatzen dituzte eta gazteen konfirmazioa ere egingen da. 12:00etan meza ospatuko da eta ondotik herri bazkaria frontoian, nahi duenarentzat irekia. Izen emateko, 948585059, 948585113 edo 948585029 telefonoetara deitu behar da.

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

CARLOS GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2C - ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 816

MENDIALDE
Jatetxea
T. 948 453 060 - AMAIUR
www.mendialdea.com

ORBELA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
www.orbela-beintza.com

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444
M. 629 659 583
ARIZKUN

IPINGI
%10
DESKONTUA
30€tik gorako
gastuan

BAZTAN

LEHIAKETAK → EKAINAREN 30A BITARTE

Merkatarien elkarteak antolatutako argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea akitzera doa

Bosgarren urtez prestatu du Bertan elkarteak

TTIPI-TTAPA

Martxan da Bertan merkataria, zerbitzu eta ostalarien elkarteak bortzgarren aldiz antolatu duen argazki lehiaketa. Edozeinendako irekia dago, baina aitzineko edizioetan bezala, argazkiek Baztanekin zerikusia izan behar dute: ingurumena, herriak, paisaiak, jendea, ohiturak, ospakizunak...

Partaide bakoitzak berak egindako hiru argazki aurkezten ahal ditu, bertze lehiaketetan aurkeztu gabekoak, eta Baztanen eginak izan

behar dute. Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean akituko da. Bitartean, eskura ematen ahal izanen dira, astelehenetik ortziralerara 09:00etatik 14:00etara edo postaz bidalita: *Bertan Baztango merkataria, zerbitzu eta ostalaritza elkarteak; Bertan V. argazkilaritza lehiaketa; Arizkunenea Kultur Etxea, Jaime Urrutia karrika 14, 31700 Elizondo.*

Lehiaketaren oinarrietan aldaketak egin dira eta horien artean, aipatu, argazkiak errebelatzeko paper normalean aurkeztu beharko direla eta bertzelako edozein euskarri baztertuko direla. Horrez gain, aurkeztutako argazkiak ez dira itzuliko.

BALLEKO ETXEA

Herritar Txartelaren sistemarekin bat eginen du Udalak

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak ere bat eginen du Herritar Txartelaren Sistemarekin. Nafarroako Gobernuak sistema horrekin bat egiteko erraztasunak emateko erabakia hartu zuen ekainaren 12ko batzarrean eta hitzarmena sinatuko da horretarako. Azken padroiaren arabera, 8.035 baztandarrek izanen dute txartelaren abantailak aprobetxatzeko modua.

Administrazioak eta toki erakundeek eskaintzen dituzten zenbait zerbitzuetara sarbidea emateko norbanako txartela da Hiritar Txartela. Bertzeak bertze, liburutegi sarean, udal kirol instalazioetan eta bertze zenbait lekutan erabilgarria da. Nafarroako 52 udaletan erabilgarri da dagoeneko, tartean Beran eta Lesakan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Giro paregabea izan zen Erdizen aldeko mendi ibilaldian

Erdiz Biziriketik antolatuta Erdizagako bazkaleku komunalean barna mendi ibilaldia egin zuten ekainaren 15ean. Ibilaldi luzea egin nahi zutenak Negusarrietik abiatu ziren. Trepako bizkarrean barna Erdizeko bazkalekura sartuta, handik Oialegiko lepora joan eta Buztanberroko bidea hartuta Okoroko gainerat igan ziren. Bertan zerbait jan-edan eta gero Erdizagako erreka zokorat jautsi ziren eta, gero, Magnak harrobia egin nahi duen ingururatu igan. Ibilaldi laburrekoak eta luzekoak elkartu eta jautsierako bidea elkarrekin egin zuten. Eguraldi paregabeak ibilaldi zoragarria egiten lagundu zuen eta ekainaren 1az geroztik bertan aldatzen ari diren ehunka behi buruek irudi ikusgarria osatu zuten. Aurtengo udan ere Baztango baserritarren ehunka behi buru Erdizeko bazkaleku komunalean marru-marru egonen dira, baserritarren udako lanak arinduz eta bazkaz ausarki gozatzuz. Eguerdian Negusarrietan etxolan hameketako ederra egin zuten. Ibilaldiak, bertze behin, Erdizek duen balioaz oharertzeko balio izan zuen eta "Erdiz Bizirik!" aldarrikatzeko.



ARGAZKIA: EUSKAL KANTUZALEEN ELKARTEA

Baztan Ikastolako taldeak sari berezia Haur Kantu txapelketan

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako haur eta gaztetxo ordezkariak Burlatako auditorioan elkartu ziren ekainaren 16an, Euskal Herriko Haur eta Gaztetxoen Kantu Txapelketako finalaren harira. Guztira 103 partaide aritu ziren oholta gainean eta 28 abesti aurkeztu zituzten, eta tartean, eskualdekoak ere lanean aritu ziren. Sarietako bat Baztanera etorri zen. Adierazkortasunaren eta alaitasunaren sari berezia Baztan Ikastolako taldeak eskuratu zuen, *Baztandarren Biltzarra 50 urte* kantuagatik. Baztan Ikastolakoak ez ziren herriko partaide bakarrak izan finalean. Leire Onsalo elizondarrak *Denona da garaipen da* abestia taularatu zuen.

AZPIEGITURAK → URTEBETE ETA GERO

Saihesbidetik Elizondorako sarbidea ireki dute ekainaren 13an

Elizondoko karririk trafikorako egokitzeko 60.000 euro inbertitu ditu Balleko Etxeak

TTIPI-TTAPA

N-121-B errepidetik Elizondorako sarbidea ireki zuten ekainaren 13an, saihesbidea ireki eta urtebete berandua- go. Lehen orduan ireki

zen bidea eta Balleko Etxeko ordezkariak eta Elizondoko kargodune izan ziren beranduxea- go aurkezpen ekitaldi ofizialean.

Saihesbidetik Elizondora sartuta, zenbait lan egin behar izan ditu Balleko Etxeak bideak egokitzeko: abiadura murrizteko kokkak, seinalizazio horizontala eta bertze batzuk. 60.000 euro inguruko inbertsioa egin da. Sarbidea irekitzearekin batera, Benito Menni erresidentzia-



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Goitian, udal eta herri agintariak inaugurazio ofizialean. Behehian, sarbidea zabalik.

ren ondotik Lekarozera doan bidea eta Elizondora Bordaxurin barna doana itxi dituzte ibilgailuendako. Nafarroako Sustapen Departamentuak debekatu egin du 5,5 Tonatik goitiko ibilgailuek sarbidea erabiltzea.

Inaugurazio ofizialean izan ziren Garbiñe Elizegi Baztango alkatea eta Mikel Ortega, Jon



Elizetxe eta Florentino Goñi zinegotziak, baita

Juan Mari Maia Elizondoko kargodune ere.

Erdizko meatze proiektuari berriz ekiteko eskatu du Garapenerako Elkarteak

TTIPI-TTAPA

Baztanek gaur egun duen egoera ekonomiko larriari aurre egiteko 2007an bertan behera utzi zen Erdizko meatze proiektuari berriz ekiteko urratsak ematen ari da Baztango Garapenerako Elkarteak.

Elkarteko kideak udal gobernu taldekoekin bildurak dira eta beraien ustez, langabeziari aurre egiteko halako proiektuei ekin behar zaie berriro. Mag-nak edo bertze edozein enpresak ballerako proiektuak baldin baditu, aurkez ditzala eta udalak egoki diren erabakiak hartuko dituela izan omen da erantzuna.

Udalaren «jarrera ireki» honek animatuta, Mag-nesitaseko zuzendaritzarekin ere bildu dira eta hauek Erdizen oraindik interesa badutela jakinarazi diete, «beti ere Baztango gehiego sozialak eta instituzioek 2007an gibelera bota zen proiektua babestuko balute». Proiektu zabalagoa ere eginen lukete, bertze fabrika batekin eta urtean 15.000-20.000 Tona biomasa erabiliz.

Enpresak emandako datuen arabera, 85 lanpostu zuzen eta zeharkako bertze 280 sortuko lirateke. Hitzarmenaren ondorioz, Udalak urteko 320.000 euro jasoko litzuke Magnaren eskutik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elikadura burujabetzaz mahainguru interesgarria

EHBilduren *Aldaketa euria* ekimenaren baitan elikadura burujabetzari buruzko mahai-ingurua egin zen ekainaren 13an Arizkunenean. Maite Iturreren gidaritzapean Mikel Altzuart nekazaria; Felix Ligos, Barraskiloak kontsumo kooperatibako kidea eta Tasio Erkizia Zazpiak bat harreman sareko kidea aritu ziren. 25 lagun inguru hurbildu ziren saiorat eta eztabaida mamitsu izan zen. Bertze hainbat konturen artean, Tasio Erkizia elikadurarenak herri osoaren gaia izan behar duela azpimarratu zuen, ez dela nekazarien ardura hutsa izaten ahal. Il-do horretan, Felix Ligosek elikadura eskubide bat dela azpimarratu zuen, ez negozioa egiteko gaia. Hala, negozioa egiteko gaia bihurtu den neurrian jendeak eta herriak ondare komun horretaz gabetu dituztela aipatu zuen. Mikel Altzuartek, bertzalde, elikadura burujabetzaren bidetik nekazaritza eredu bat finkatzearen beharra aipatu zuen eta, hori, modu orokorragoan, gure beharrekin eta ditugun baliabideekin harremanatzea; hau da, inguruari buruzko orekan.

URDAZUBI

GIZARTEA → EKAINEKO HIRU IGANDE GOIZETAN PANTAILARATU DUTE

Itxuraberritutako eliza dotore agertu da Euskal Telebistako emankizunetan

Bi herrietako kantariak bere kantu politenak eskaini zituzten

Margari eta Koro

Hainbat hilabetetan berritze lanetan aritu ondok, udaberritik hunat izigarri itxura ederra hartu du elizak.

Eta sari bat balitz bezala, hiru astez ETBk mezak grabatu ditu eliza huntan: ekainaren 8, 15 eta 22ko larunbatean grabaketak egin, eta biharamuneko igandean eman ditu. Meza ederrak izan dira, lehenbizikoan haurrek izan zuten parte hartze garrantzitsua, eta bertzean bi herrietako kantariak bere kantu politenak eskaini zituzten.

Eliza hau aspaldikoa da, uste baita duela 1.100 urte dagoeneko egina zegoela. Baina eliza izateaz gain, fraileen bizileku ere izan da, urte aunitzetan gainera Nafarroako monasterioen artean garrantzitsue-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Ekainaren 15ean grabatu zen meza.

netakoa. Bere historia luzean garai beltzak ere bizi izan zituen: Nafarroako konkistaren ondorioz 1526. urtean erre zuten. Gero 1793. urtean frantses soldaduak sartu eta berriz ere erre zuten (9.000 liburu omen zituen orduan, eta denak erre ziren). Azkenik 1839 urtean gobernuak saldu zituen mo-

nasterioko ondasun guztiak, eliza izan ezik. Geroztik herriko eliza bihurtu zen.

AZKEN BERRIKUNTZAK

Eliza barreneko azken berrikuntzak gauden urteko uztailean hasi ziren eta urriaz geroztik itxia egon zen. 240.000 euroko aurrekontuarekin, koadroak

eta irudiak zaharberritu ziren, baita elizaren erretaulak ere, bi gehituz. Zorua berritu, berogailu sistema aldatu, aldare berria egin eta ganga eta hormak margotu ziren hasieratik zutabeak zuten motibo geometrikoak berreskuratuz. Aurten, apirilaren 20an egin zuten berrikuntzen inaugurazioa.

Pertsonaia

Ana MITXELENA

Nafarroako kenpo txapeldun izan da hiru modalitatetan

Beran jokatu dira Nafarroako Kenpo federatuko txapelketak eta 18 urtetik goitiko kategorian Ana Mitxelena garaipena lortu du hiru modalitatetan: kata, kata kobudo eta borroka puntuan urrezko domina eskuratu zuen eta hirugarren izan zen borroka jarraian. 14 urterekin hasi zen kenpoa praktikatzen Beran eta geroztik, sei urteotan lehen ere irabaziak ditu Nafarroa eta Espainiako txapelketak. «Ez dut bertze kirolki praktikatzen, ez bada frontenisean aritzea lagunekin eta lehengusuekin». Beran entrenatzeaz gain, orai berak kenpo klaseak ematen dizkie Urdazubiko haurrei.

kukuka
